



2013KO MEMORIA

AURKIBIDEA


2. Misio, erronkak eta antolakuntza	6
2.1 Misioa	6
2.2 Erronkak.....	7
2.3 Antolakuntza.....	8
3. BBK Solidarioa – Gizarte Ekonomiari laguntzea	8
3.1 Gizarte-finantzaketa	9
3.2 Ekintzailtzarako laguntza	10
3.3 Gizarte-ekonomiako ekinbide berriak sustatzea.....	11
3.4 Aurrezki Solidarioaren sustapena.....	12
3.4.1 BBK Fundazioaren Elkartasun Funtsa	13
3.5 Beste jarduera batzuk.....	13
3.5.1 Bidezko Merkataritza.....	13
3.5.2 Garapenerako lankidetzat.....	14
3.5.3 Laguntza Humanitarioa	15
4. BBK beka-programa	15
4.1 Lan-praktiketakarako beka-programa.....	16
4.1.1 Praktikak Bizkaiko enpresetan:.....	16
4.2 Prestakuntza Espezializatua Eskuratzeko Beka Programa.....	17
4.3 Prestakuntza Osagarriarako Beka Programa.....	17
4.4 Ikerketarako Beka Programa	17
4.5 Arte eta Kultura alorreko Sormena sustatzeko Beka Programa.....	18
4.6 Bilbao BBK Talent.....	19
4.7 BBK Abandoibarra	20
5. Ezgaitu eta Mendekoei laguntzea	20
5.1 Ola BBK zentroa	22
5.2 Eragintza Fundazioa.....	23
5.3 Argia Fundazioa	24
5.4 <i>Aspaldiko</i> Fundazioa	25
5.5 Eguneko zentroak	25
5.6 Bilbao BBK GoodHostel.....	26
5.7 Jabetuz zentroa	26
5.8 Hondartza Denontzat	26
5.9 Dokudea zentroa eta elektronika-zentroa	27

5.10 Futubide zentroa	28
5.11 EM Labs	28
5.12 Apnabi Bizitza independentea.....	28
5.13 Barriztu Programa	28
5.14 Beste esku-hartze batzuk	29
6. Haur eta gazteei laguntzea	30
6.1 Haur Eskolen sarea	31
6.2 Hezkuntza-sistemari laguntzeko programak	31
6.3 Haur eta gazteentzako udalekuak	34
6.4 Izenaduba Basoa.....	35
7. Nagusientzako laguntza.....	35
7.1 Nagusientzako zentroak	36
7.2 Jarduera soziokulturalen programa	36
7.3 EHUko Esperientzia Gelak	37
7.4 Nagusientzako egoitzak.....	38
7.5 Beste jarduera batzuk.....	38
8. Hirugarren Sektorea bultzatzea eta indartzea	39
8.1. Hedatzen ari diren gizarte-proiektuetarako laguntza	39
8.2 Bolunta – Boluntariotza eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia	40
8.3 Ganbara (Elkarteen hotela)	41
8.4. Hirugarren Sektorearen Behatokia.....	42
8.5. Indartu Programa	45
8.6. Bestelako lankidetzak	47
9. Ingurunea eta ingurumena	48
9.1 Hezkuntzaren eta zabalkundearen aldeko ahalegina.....	48
9.2 Bioeskola BBK	49
9.3 Urdaibai Bird Center	49
9.4. Lehen Sektorea Sustatzeko Programa.....	50
9.5 Uzta Landuz, iraunkortasuna ereiten dugu	51
9.6 Aparka, mugikortasun iraunkorra	52
9.7 BBK Basoa	52
9.8 Pakea Bizkaia 2010-2014.....	53
10. Oinarrizko eta Amateur Kirola Sustatzea	53
10.1 BBK Mundialittoa	53

11. Gizarte Etxebizitza	53
12. Kultura eta sormena	54
12.1 BBK Sala	54
12.1.1 Erakusketak	55
12.1.2 Antzerkia eta Dantza	55
12.1.3 Musika	56
12.1.4 Zinema	57
12.1.5 Beste jarduera batzuk.....	57
12.2 BBK Mediateka	57
12.3 Museoekiko lankidetz.....	58
12.4 Musika	59
12.5. Euskara eta euskal kultura.....	59
12.6 Argitalpenak	60
13. Giza Baliabideak.....	60
14. BBKren Gizarte Ekintzako Guneak.....	62

1. Gizarte-inbertsioa

Kudeatutako bolumen osoa 38 milioi euro baino gehiagokoa da, gizartean esku hartzerazuzenean bideratutakoak. Horrela, 2013an, dibidendu sozialaren alorrean aurrezki-kutxen rankineko buruan kokatu da ostera ere BBK, eta une hauetan EAEn gizarte-gastu handieneko erakunde pribatua da.



2013ko ekitaldiaren balantze ekonomikoa

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
GIZARTE EKINTZAKO ZENTROAK	4.192.188,54
GIZARTE EKINTZAKO HIGIEZINAK	920.240,00
GIZARTE EKINTZAKO INBERTSIO IBILGETUA	149.530,00
GIZARTE-EKINTZAKO PROGRAMA ETA JARDUERAK	4.236.455,00
LANKIDETZAKO PROGRAMA ETA JARDUERAK	2.301.045,30
INTRANET, INTERNET ETA SISTEMAK	3.700,00
GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN KOMUNIKAZIOA	288.000,00
GIZARTE EKINTZAKO GIZA BALIABIDEAK	11.639.790,00
BBK FUNDAZIOA	7.815.000,00
GORDINA GUZTIRA	31.545.948,84
BESTELAKO SARRERAK	-6.253.330,00
GARBIA GUZTIRA	25.292.618,84
HIGIEZINAREN AMORTIZAZIOA	6.484.370,00
AURREKONTUA GUZTIRA	31.776.988,84
KUDEATUA GUZTIRA	38.030.318,84

2. Misio, erronkak eta antolakuntza

2.1 Misioa

BBK Gizarte Ekintzak **100 urte baino gehiagoko ibilbidea** eduki du. Denbora-tarte horretan bere zerbitzuak eta ekarpenak egunean ipintzen ibili da, aldiro, gizartearen beharrianetara moldatuz. Bere jarduera-eremuko **gizartearen garapenean** zalantzarik gabeko eragina izan du. Azken 5 urteotan soilik 400 milioi euro inguru inbertitu ditu, zuzenean eta zeharka milaka pertsonarengan esku hartuz, hurrengo alorretatik: ekintzailetzarako laguntza, mendekotasuna edo ezintasuna duten pertsonen laguntzea, haur eta gazteen heziketa, nagusiak, ingurumena, gizartetik baztertuta bizi direnak, etab. Gaur egun, **balio handiko gizarte-programak** ditu, eta erabiltzaileek, herri-erakundeek eta hirugarren sektoreko erakundeek oso aintzat hartzen dituzte. Lorpen horiekin guztiekin, gure Gizarte Ekintzaren etorkizuna gogo handiz diseinatu ahal izango dugu, BBKren balio-proposamena besteengandik bereiztea elementu oso garrantzitsua dela jakinda.

Horregatik, **gure misioa balio iraunkorra sortzea** dela baieztatu dezakegu. BBK **gizartearen garapenarekin** eta **balio iraunkorra sortzearekin** konprometitutako erakunde pribatua da, **izaera fundazionala** duena. Horregatik, gizartearentzako balioa sortzen du, Kutxabanken bitartez finantza-zerbitzuak eskainiz. Halaber, **gizarte-ekintza garrantzitsuaren bitartez, komunitatearen garapenaren eragilea** da. Ekarpeneak elkarren osagarriak dira eta bere historia, identitate eta xedearekin bat datoz. Ikuspegi horren arabera:

- ✓ *Gure aburuz, gizarte ekintza gizarteratze-prozesuetan egindako eragin proaktibo, sistematikoa eta bidezkoa da.*
- ✓ *Aurrezki Kutxa izanik, zehatz-mehatz finantza-bazterketaz arduratzen gara, baina horrek ez du azaltzen ezta agortzen ere gizarte-bazterketaren fenomeno konplexua.*
- ✓ *Gure gizarte-ekintzaren jomugan pertsona eta ingurune guztiak daude, baina batik batik, Kutxabanken interes-taldeak. Izan ere, finantza-harremanaren bitartez gizarte arloko jarduerak egiteko aukera emango duten baliabideak lortuko dituzte talde horiek.*
- ✓ *Beraz, Gizarte Ekintzaren hartzaileak hurrengo hauek izango dira: gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden edo kaltetuak izateko aukera duten pertsonak, taldeak, erakundeak eta komunitateak. Halaber, gizarteratzen laguntzen duten prozesuetan parte hartzen dabiltzan eragileak barnean hartzen ditu.*
- ✓ *BBK Gizarte Ekintzak sustapena eta prebentzioa sustatu gura ditu, batzuetan asistentzia emateko edo kaltea arintzeko izaera hartu dezakeen arren.*
- ✓ *Gure asmoaren baitan dago zeharkako elementu eta balio multzo bat sartzeko, batez ere, generoaren araberako ikuspegia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko tresna gisa.*

2.2 Erronkak

BBKn honelako Gizarte Ekintza hau sustatu gura dugu:


- ✓ ... gizarte-ekarpen **garrantzitsua** egitera bideratua, eragiletza- eta aitzindaritzagaitasunarekin, jakinik erronka horrek ikuspegia eta bizi garen **gizartean txertatuta egotea** eskatzen duela. Beste eragile batzuekin ikuspegi partekatu hori sortzeko eta **gizarte-ekintzaren abangoardian** egoteko konpromisoa hartzen dugu.
- ✓ ... **elkartasunaren, inklusioaren, etikaren eta iraunkortasunaren** aldeko apustua egiten duena. Horixe izan da gure Gizarte Ekintzaren nortasun-ikurra: pertsona guztien gizarteratze aktiboa eta solidarioa bultzatzea; horretarako, ezintasunaren alorreko eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboen alorreko erreferentziatzko proiektuei heldu die. Proiektu berritzaileen bidez, **elkartasun-eremu horretan aitzindari izaten jarraitu gura dugu.**
- ✓ ... gure interes-taldeek **areago ezagutu eta estimatuko** dutena. Badakigu jakin gaur egun, Kutxabank posible egiten duten pertsonen aitortpenik, konfiantzarik eta laguntzarik gabe gure gizarte-proiektuak ez direla jasangarriak. Zorionez, gure gizarte-ekintzari buruzko informazioa eskatzen duten interes-taldeak ditugu. Horregatik, horiekin guztiekin **komunikazio-estrategia hurbila, konfiantzazkoa eta eraginkorra** diseinatzeko konpromisoa hartzen dugu. Guretzat, gure interes-taldeetatik hurre egoteak euren balio eta kezkekin konektatzea eta proiektuak euren parte-hartzeari zabaltzea esan nahi du.
- ✓ ... gizarte-ekarpena **diziplina- eta balio-aniztasunean** ulertzea. Gure iritzian, enplegua sortzea, ezagutza eta ikerketa, hezkuntza, gizarteratzea, osasuna, kultura, kirola, etab. elkarlotuta daude. Horregatik, **une bakoitzean eta egoera bakoitzean, gizartea aurrera bultzatzeko behar diren proiektuetan egon gura dugu.** Espezializazio-asmoaren aurka, jardun zabaleko Gizarte Ekintzaren aldeko apustua egiten dugu.
- ✓ ... baieztapen hori eginda, gure ustez gaur egungo egoeran funtsezkoak diren **apustu bi egiten ditugu**, eta bietan erreferentzia argia izan nahi dugu: **gizarte-berrikuntza eta talentuaren garapena**. Ikuspegi propioa dugu, bai gaur egungo krisi-egoeraren inguruan, bai ezagutzen oinarritutako gizarte lehiakor eta berritzaileantzt jotzeko moduaren inguruan. Eta pentsatzen dugu esparru horretan gizarte-balio handiko proiektuak bultzatuz bereizteko aukera dugula.
- ✓ ... **zuzenean edo zeharka BBK-ko parte diren pertsona guztiekin lotua eta euren ekarpenetara irekia**: gure plantilla, Kutxabank posible egiten duen jendea, erakundeak eta erabiltzaileak. Gu guztiok erakundearen **gizarte-konpromisoaren** parte garelakoan gaude. Pentsatzen dugu funtsezkoa dela **barne-komunikaziorako** eta parte hartzeko bideak indartzea, pertsona bakoitzak bere interes eta balioetarako egokia deritzon moduan bizi dezan konpromiso hori.
- ✓ ... **sare-lanean eta beste eragile, publiko eta pribatuekin lankidetzan** jardutearen aldeko apustua egingo duena. Konbentziturik gaude gure gizarte-proiektuen garrantzia eta indarra areago haziko dela gainerakoekin lankidetzan jarduteko gai garen heinean. Sistema baten partetzat jotzen dugu geure burua, erronka asko

partekatzen ditugun beste eragile batzuekin batera bizi garelako. Ardura publikoaren esparruan subsidiariorotasun-printzipiotik osagarritasun-printzipiora joanez, gizarte-sistemaren pieza izan nahi dugu; betiere premien eta gure ekarpen-ahalmenaren arabera, aitzindari izan, aitzindaritza partekatuan jardun edo lagundu egin nahi dugu.

- ✓ ... Aurrezki Kutxa moduan izan dugun mendetako jardueraren oinordekoa izango dena eta, beraz, **finantza- eta gizarte-bazterkeriaren ondorioz datozen gizarte-premia guztiekiko sentiberatasun berezia izango duena**. Gizarte-ekonomiako tresnak sustatuz, eskarmentu handia dugu bazterkeriaren aurkako borrokan; hain zuzen, esparru horretan aitzindari izaten jarraitu nahi dugu.
- ✓ ... azkenik, gizarte-konpromiso hori guztia profesionaltasunaren, **eraginkortasunaren eta gardentasunaren** aldeko apustu ukaezinarekin batera dator. Gure gizarte-proiektuetan egindako inbertsioak ahalik eta **gizarte-errentagarritasunik** handiena izateko konpromisoa hartzen dugu. Gure ustez, funtsezkoa da errentagarritasunaz berba egitea

2.3 Antolakuntza

BBK Gizarte Ekintzaren asmoa da diziplina askotarikoa eta balio anitzekoa izatea. Horrek malgutasuna ematen dio gizarte-beharrizan berrietara bere jarduera moldatzeko. Hurrengo eremu hauetan esku hartzen duen multzo koherentea da:



3. BBK Solidarioa – Gizarte Ekonomiari laguntzea

BBK Solidarioa proiektuak –2011 arte BBK Gazte Lanbidean eta BBK Solidarioa fundazio desagertuek egiten zuten lanaren oinordekoak– BBK Gizarte Ekintzaren jardueraren erreferente estrategiko nagusietako bat hartzen du gaur egun. Egungo finantza-egoera (hau da, krisi global ikaragarria orain arte ezagutzen ez genuen bezala enplegua suntsitzen ari dena, eta gastu publikoa murriztera behartzen duena ezagutzen genuen Ongizatearen

Gizartea birpentsatzera behartzeraino) gordintasun bereziz nabarmendu da gizarteko segmenturik ahulenetan.

Beraz, garaia da sektore publiko, sektore pribatu eta irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuaren artean **itun** berriak eta indartsuagoak bilatzeko. Itun horiek pobrezia eta prekariedade egoerak arintzera bideratu behar dira itun horiek, eta baliabideak jarduera ekonomikoa sortzera berrorientatu eta, beraz, jende guztia gizarteratzera.

BBKren Gizarte Ekintzak, oraindik orain, **gizarte-finantzaketa espezializatu eta iraunkorreko** eredu bat garatzeko apustu estrategikoa egiten jarraitzen du. Hala, finantza-erakunde kaudimentsu eta aitortu bati (halakoxea baita Kutxabank) dagozkion gardentasun, zorroztasun eta exijentzia parametroen baitan jardunez, gizarte-ehuna indartu eta gizarte-balioa sortzeko aukera eskainiko da, hirugarren sektoreko erakunde-sistemaren egonkortasuna bermatuz.

Ikuspegi horretatik abiatuta, BBK-k gizarte- eta finantza-inklusioa bilatzen duten prozesuak bultzatzeko apustua egiten du, argi eta garbi. Ildo horretan, hiru dimentsio sinergiko eta koherentetan jarduten du, betiere asmo berberarekin: **ekonomia- eta gizarte-garapena**.

- ✓ Batetik, **gazte ekintzaileek edo langabetuek sustatutako jarduera ekonomikoak** abian jartzen, finkatzen eta handitzen laguntzea. Lan-merkatura sartzeaz gain, lanpostu berriak sortzeaz dihardugu.
- ✓ Bestetik, **gizarte-finantzaketarako** lerro bat. Baliabide hau proiektuak garatzen dituzten pertsona eta erakundeen esku dago, betiere gizarte-eragina baldin badute eta irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuetara bideratzen bada, gizartetik baztertuta geratzeko arriskupean dauden kolektiboekin lan egiten dutenean. Horren barruan sartzen dira hurrengo ekimen hauek: lan merkatura sortzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua eskaintzen dieten gizarteratzeko enpresak, elkarteararen eguneroko kudeaketa, ohiko kreditu-sistematik baztertutako pertsonak, beharrezko pertsonal edo familiarrei aurre egin behar dietenean.
- ✓ Azkenik, egitura produktibo "sozialak" sortzen laguntzen duten inguruneak eratzeko xedez eraikitako **aliantza eta sare-multzoa**. Termino horren pean biltzen dugu gizarteratzearen, iraunkortasunaren eta gizarte-partaidetzaren ikuspegiarekin merkaturian jarduten duten enpresa-ekimen berriak sustatzen dituzten pertsona eta gizarte-erakundeekin BBK-k garatutako lankidetzak eta konplizitate-kopuru handia.

3.1 Gizarte-finantzaketa

2013. urtean, BBK-k jarraitu du gizarteratzea sustatzeko jarduera bizia egiten; gizarte-finantzaketako proiektu garrantzitsu baten bidez, 7,6 milioi euro eman ditu eta esku hartzeko hiru ardatzen inguruan ibili da: ekintzaileei laguntzea, irabazi asmorik gabeko erakundeen sendotzea, eta gizarte-ekonomiako enpresak sustatzea.

Alor honetan, **irabazi asmorik gabeko gizarte-erakunde**etarako finantzabidea irekitzea izan da beste esku-hartze garrantzitsu bat. Azpiegiturak eta zirkulazionalak finantzatzeko kreditua eskuratu ahal izatea da, zalantza barik, gizarte-sarea sendotzen laguntzen duten beste tresnetariko bat. Beharrezko sozialetan zuzenean operatzen duten erakunde horiek indartzeak eragin zuzen eta egiaztatgarria dauka, baztertuta dauden kolektiboetan eta pertsonengan. Erakunde horiekin batera elkarlanean jardutea da, seguru asko, BBK Gizarte Ekintzaren esku hartzeko ereduaren indar-gune nagusietariko, gizarte-errealitateari atxikita daudelako.

Aldi berean, BBK-k jarraitu du finantzaketa-lerro berezi bat eskaintzen **gizarte-ekonomiako** erakundeentzat. Enpresa-egiturak, irabazi asmorik gabeko ekimen pribatutik sustatuak, merkatuan ohiko enpresekin lehiatzen ari direnak eta lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten taldeentzat lanpostuak sortzen dituztenak. BBK-k urteak daramatza **gizarte- eta ekonomia-balio iraunkorra sortzeko** estrategia horrekin konprometuta eta, gainera, interes-taldeak, bezeroak, langileak, hornitzaileak eta erakunde publikoak biltzen ditu gizarte-arazoetarako erantzunaren bila.

Atzeraldi eta langabeziaren gehikuntzaren testuinguru ekonomikoak konpromiso handia eskatzen du BBK bezalako erakundeen aldetik; izan ere, Aurrezki Kutxa gisa gizarte- eta finantza-egoera arrakastatsuen oinordeko da, kreditua lortzeko erraztasuna emanez **autoenplegurako proiektu bat duten pertsona ekintzaileei**. Honela, joan zen 2013an, BBK-k 178.000 euro bideratu ditu kreditu eskuragarri gisa, gazteen eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen **enpresa-ekinbide berriak** finantzatzeko, eta horri esker langabezian zeuden 13 lagunek jarduera ordaindua aurkitu ahal izan dute.

2013an emandako gizarte-finantzaketa osoa

	2013		METATUA	
	ERAG. KOPUR.	ZENBATEKOA	ERAG. KOPUR.	ZENBATEKOA
EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZA	12	178.100	4.463	143.446.301
GIZARTE-EKONOMIA	16	4.291.500	209	60.131.385
HIRUGARREN SEKTOREA	14	3.145.286	301	47.985.896
MICROFINANTZAKETA	0	0	1.256	3.396.042
BESTERIK	-		36	2.942.570
GUZTIRA	42	7.614.886	6.265	257.902.194

3.2 Ekintzailetzarako laguntza

BBK Fundazioak ekintzaileak sustatzeko duen zerbitzua BBK Gazte Lanbidean fundazio ohiak 1998tik egindako jardueraren luzapena da. Lanpostuak sortzen dituen negozio, enpresa edo bizitza-proiektu berria garatu gura duten pertsona guztien esku tresna bat jarri du merkatuan.

Programa honek **auto-enpleguko ekinbideak sortzea** bilatzen du, ekintzaileei laguntza emanez prozesuaren faserik kritikoenetan: heldzea, bideragarritasunaren azterketa, negozioa eratzea eta abian jartzea. Laguntza hau kudeaketako tresna multzo baten bidez egingo da, era integralean enpresa-proiektuak aztertzen dituztelarik beren alderdi guztietan, egon litezkeen ahuleziak detektatuz eta ekintzaileen euren gaitasunak osatuz.

Programa honen jarduerako 15 urteetan guztira zuzeneko 4.463 esku-hartze egin dira ekintzailetza-proiektuen alde, eta horrela 5.000 pertsona inguruk, gehienak gazteak, jauzi egin dute lan-merkatura beren edo besteren kontura.



Proiektu honek **finantza-eredu espezifiko**en bitartez lan egitea eskatzen du, **pertsona eta proiektu bakoitzaren errealitatera egokituta**. Emandako irtenbide guztiek negozio-idea bakoitzaren azterketa pertsonalizatua dute abiapuntu, eta abian jarri eta lehen urteetan laguntza jasotzen dute. Hala ere, BBK Fundazioak ekintzaileak sustatzeko daukan zerbitzua finantzabidera mugatzen ez dela azpimarratu behar dugu. Jarduera ekonomikoari ekiteko, finantzabidea funtsezkoa -eta beharbada ereduari eskaini diezaiokeen balio erantsirik handiena- den arren, **aholkularitza eta jarraipena** proiektuaren arrakasta bermatzeko oinarrikoak direla adierazi digu esperientziak. Eredu hau babesturiko proiektuetako bakoitzera egokitzen da eta honako etapa hauetan gauzatzen da: **Idea mamitzea eta bideragarritasuna aztertzea**, hurrengo atalak dituen: enpresa-aholkularitza, bideragarritasun-plana egitea eta aholkularitza teknologikoa.

- ✓ **Finantzabidea baldintza berezietan:** epe labur eta luzerako finantzabidea, sustatzaileentzako maileguak edo enpresetarako maileguak, aktibo finkoan eta zirkulatzailan.
- ✓ **Abian jartzen laguntzea**, eraketan eta tramitazio ofizialean laguntza eta etengabeko aholkularitza eskainita.
- ✓ **Gestoriaren alorrean laguntza, aholkularitzaren hurrengo alderdiak barne hartuta: arlo fiskala, lanekoa eta kontabilitatea.** Zerbitzua doan eskainita lehenengo urtean, dagokien proiektuetan.
- ✓ **Enpresaren jarraipena** jardueraren hasierako urteetan.

Ekintzaileei laguntzeko zerbitzu hau kolaboratzaileen sare trinko batean oinarritzen da, unibertsitateak, ikastetxeak eta Bizkaiko Behargintza sarea bera barne direla. Lankidetzaren esparruan, nabarmentzekoa da, bere garrantziagatik, Deustuko Unibertsitatearekin batera eta "DeustuLan" Lan-munduan Txertatzeko zentroaren bidez, **autoenpleguko ekinbideak sustatzeko** eta **enpresa berriak sortzeko**.

3.3 Gizarte-ekonomiako ekinbide berriak sustatzea

Gizarte-bazterkeriaren aurrean egoera ahulean daudenak lan-merkatuan txertatzeko tresna gisa, gizarte-ekonomia hedatzea eta indartzea izan da BBK Solidarioa proiektuaren beste erreferenteetariko bat. Gizarte-ekimena sortu eta finkatzeko beharrezko baldintzak sortzera bideratu dira BBK-k alor honetan egindako jarduerak, horrela **kalitatean enplegu egonkorra** sortu ahal izateko. Hitz batean, **gizartean eragin positiboa** duten ahalik eta jarduera ekonomiko gehien sustatu gura ditugu. Jarduera horiek, aldi berean, errentagarriak izan behar dira eta gairik ekonomikoa sorrarazi behar dute, horrela guztion ongizatean eragina eduki eta langileen ahalmen partikularra handitzeko

Illo horretan kokatzen dira gizarte-ekonomiako erakundeak, laneratzeko enpresak eta, orokorrean, ondasun edo zerbitzuak sortzeaz gain, euren xede sozialean baztertutako pertsonak **gizartean eta lanean txertatu** eta enplegu arruntera bideratzea jasotzen duten enpresa guztiak.

Finantza-izaerako edozein jardueratarako bereziki txarra den ingurunean eta Kutxabankekiko lankidetzaz hitzarmenari esker, BBK Fundazioak 4,3 milioi euro eman dizkio kolektibo honi, haien neurriko finantzabide bigunen bitartez.



3.4 Aurrezki Solidarioaren sustapena

Aurrezki solidarioaren ekarpen nagusia **banka sozial eta solidario**ko zirkuitu itxia antolatzea da. Horrela, gizarte osoari eta elkartasunaren zein garapenaren aldeko konpromisoa duten pertsona guztiei beren aurrezki eta inbertsioetan gizarte-osagaia gehitzeko aukera ematen zaie. **Errentagarritasun ekonomiko eta soziala** batzen dituen formula honen bidez, gizarte-proiektuetan laguntzeko aukera ematen die inbertsiogileei, horretarako aurrezki/inbertsioko hiru produktu erabilia:

- ✓ **Gordailu Solidarioak.** Epe finkorako ezarpenak dira, merkatuko interes-tasa jakina dutenak. BBK-k eskaintzen duen likidezaren segurtasuna edukitzeaz gain, gizartean inpaktu handia duten proiektuak finantzatzeko erabiliko dira. Gordailu hauek kontratatzen dituzten pertsonak beren interesen zati bat Elkartasun Funtzari emateko konpromisoa hartzen dute. BBK-k bere aldetik ekarpen horren balio bikoitza eskaintzen dio.
- ✓ **BBK Solidarioa Inbertsio Fondoa.** Funtz honen bitartez, helburu eta proiektu solidarioetan beren aurrezkiaz parte hartu nahi dutenen aukerak dibertsifikatzen lagundu gura dugu. Funtz mistoa da, %25eko errenta aldakorra eta %75eko errenta finkoa dituen, parametro etikoen arabera gobernatua. Sozietate kudeatzaileak inbertsioak egiterakoan bere buruari irizpide batzuk ezartzen dizkio, batzuk baztertzailerak eta beste batzuk baloraziokoak. Kudeatzaileak kudeaketa-gastuen %0,7 Elkartasun Funtzera bideratzen dator izaera solidarioa.
- ✓ **Batu eta Segi Solidarioa Aurrezki Plana.** Lehenengo urtetik likidezia duen finantza-produktua, beren aurrezkiari izaera solidarioa eman nahi dioten pertsonen zuzendutakoa. Planaren titularrak berak lortutako interesen zatiaren ehunekoa (%20 eta %100 artean) erabakiko du, BBK Fundazioak gidatutako gizarte-proiektuetara bideratzeko.

Pasibo Solidarioa guztira 2013/13/31n

	Gordailu Solidarioa		BBK Solidarioa FI
	ERAG.KOP.	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA
Sinatutako kontratuak	10.346	168.534.383	-
Indarrean dauden kontratuak	1.170	10.616.154	6.946.711


Solidarioa

3.4.1 BBK Fundazioaren Elkartasun Funtsa

Elkartasun Funtsaren bitartez, batetik, gizarte-ekonomiako ekimenak diruz lagundu daitezke eta, bestetik, **gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboetan inpaktu positibo egiaztagarria** duten proiektuak.

Elkartasun Funtseko sarrerak eta irteerak 2013an

		ZENBATEKOA
SARRERAK	Gordailugileak	1.028.478
	BBK Gizarte Ekintzaren ekarpena	2.056.954
	Onuradunak	265.012
	Beste dohaintzagile batzuk	71.981
	BBK Solidarioa FI	296.785
	Fondoaren interesak	105.343
	GUZTIRA	3.824.553
IRTEERAK	Gizarte-proiektuak	35.140
	GUZTIRA	3.331.334
SALDOA		493.219

Elkartasun Funtsak emaile solidarioen dohaintzak jasotzen ditu eta beren interesen zati bat gizarte-proiektuetan erabiltzera bideratzen du. Bestetik, BBK Fundazioak bezeroen dohaintza solidarioaren balio bikoitza bideratzen du Funts honen ekarpen espezifiko gisa.

2012an, Funts horren baliabideak erabiliz lagundu da Bilboko Emaus Bilbao SCISek sustaturiko Aparka proiektua (Txosten honetako 10.6 atalean agertzen da) .

3.5 Beste jarduera batzuk

3.5.1 Bidezko Merkataritza

Ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean, maila global zein nazioartekoan, **ekitatezko eta bidezko salerosketak** sustatzen dituzten ekimenei adierazi nahi die BBK Gizarte Ekintzak bere konpromisoa. 2013an, gure ingurunean bidezko merkataritza ezagutzera ematera eta sustatzera bideratuta dauden sentsibilizatze programetan parte hartzen jarraitu dugu, eta kontsumoko jarraibideei buruzko irizpide kritikoa sortzeko aukera ematen duten prestakuntza- eta pedagogia-programak prestatu ditugu.

Aurten, bidezko merkataritzako ekinbideen laguntza zenbait udalekin izandako kolaborazioen bidez gauzatu da. Zehatz esanda, Bilboko Bidezko Merkataritzari buruzko 11. Astearen antolakuntzan parte hartu dugu, eta GGKEetako azokak egin dira Getxo eta Barakaldoko udalekin elkarlanean.



Aurten, aurrekoetan bezala, bidezko merkataritzako zenbait erakundek parte hartu dute Bilboko San Tomas Azokan. Jarri duten txosnan beren produktu-eskaintza zabala dastatzeko aukera egon da.

Ekitatea, gizarte-justizia eta iraunkortasun bezalako balioak BBKn zeharka sartzeak bidezko merkataritzaren oinarritzako balioak Gizarte Ekintzaren esku-hartzeetan egoteko aukera eman dute, batik bat, hezkuntzari dagokionez. Hala ere, Errioxako Briñasko eta Berrizko BBK Zentroek burututako "Hiritartasuna, Elkartasuna eta Lankidetzatza" programan espezifikoki garatzen dira bidezko merkataritzari zuzenean lotutako balioak. Horretan, jolasen eta prestakuntzako jardueren bidez, parte hartu duten gazteek **ekoizteko eta merkaturatzeko ordezkio ereduak** identifikatzen ikasten dute, zentzuzko kontsumoaren ohiturak aztertu eta barneratuz.

Bestetik, azken urteotan behin betiko sartu da **gizarte-klausulen** multzo bat BBK-k bezero gisa eskuratutako produktu nahiz zerbitzuetan. Hala, aurten berriro ere, Intermon-Oxfam, Emaus eta Mercadeco-ren bidezko merkataritzako artikulu-sorta bat ipini dute Kutxabank puntuen katalogoan, gure bezeroek ezagutu eta eskura ditzaten aukera eskainiz.

3.5.2 Garapenerako lankidetzatza

Garapenerako lankidetzatza gure eremua zehazteko, **finantza-sistemako bazterkeriaren aurkako borrokan** eskaini dezakegun balio erantsian oinarritzen gara BBKn.



Ildo horretan, garabidean dauden herrialdeetatik datozen lehenengo sektoreko **produktuak ekoizteko sistemak** eta merkaturatzeko bitartekoen **hobekuntza** sustatzera dago bideratuta batez ere BBK Fundazioaren esku-hartzea, Euskadiko hainbat GGKEri emandako maileguren bitartez. Mailegu horietako asko beste diru-laguntza batzuekin osatu dira, Gizarte Proiektuak Laguntzeko BBKren urteroko deialdiaren kontura.

2013an kreditu-lerro aktiboak honako hauek izan dira:

- ✓ **Proclade Yanapai Fundazioarekin** lankidetzatza, 120.000 dolarreko finantzaketa-lerroa ireki da Agroexportadora Maquita, Ekuadorren kakao merkaturatzen duen kooperatibarentzat. Finantzaketa biguna eskuratuz, laborantza-prozesuak hobetu eta nekazariak aurretik ordaintzeko aukera dute; gainera, kooperatibaren kakao merkaturatzeko, industrializatzeko eta esportatzeko bideak zabaltzeko dira.
- ✓ **Intermon Oxfamekin** lankidetzatza, 35.000 dolarreko kreditu-kontu bat ireki da Ekuadorreko El Oro kreditu-kooperatiba komunitarioak indartzeko. Programa horri esker, landa-eremuko emakumeak biltzen dituzten kooperatiba horiek finantza-gaitasun handiagoa izan dute, eta premia berezian dauden pertsonak errazago eskuratu dute kreditua (batez ere guraso bakarreko familiak, langile informalak, merkataria eta nekazaritza-ekoizleak).
- ✓ **Elkarkredit-Mundu Batekin** lankidetzatza, Proiektu Komunitarioak sustatzeko El Salvadorreko Procomes Elkartearentzako kreditu-lerroa, ekonomiaren sektore ez-formaleko 300 emakume mikroenpresaburu eta nekazari. Pertsona horiek gaur egun ohiko kreditu-sistematik baztertuta egon dira eta, ekimen honi esker, biziraupenerako ekonomiatik eboluzionatu eta enplegua eta auto-enplegua sortu

ditzakete. Maileguak taldeari eskaintzen zaizkio; kreditua emandakoan, taldea –aholkulari baten laguntzaz– inbertsioaren jarraipena egiteaz arduratu da. Elkarkredit-Mundu Bat-ekin ere ohiko finantza-sistematik kanporatutako emakumeek kreditua eskuratzeko lerro bat martxan izan da Nikaraguako zenbait udalerritan.

AM-BBI Antioquía-Medellin, AM-BBI Bizkaia-Bilbo Programa. 2013an amaitu egin da erakunde publiko eta pribatuen arteko sareko lankidetzaz zuzeneko ekimen aitzindari hori. BBK-k ez ezik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Hegoa-Nazioarteko Garapen eta Lankidetzarako Ikasketa Institutuak ere hartu dute parte. Kolonbian, Antioquiako Gobernuak, Medellingo Udalak eta Antioquiako Unibertsitateak bultzaturiko proiektua gauzatu dute. Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta BBK-k lau urtez finantzatu dute programa hori, Medellingo 8 eta 9 komunetako eta Kolonbiako Antioquia Departamentuko Iparreko eta Mendebaldeko beste sei udalerritako gizon eta emakumeen bizitza-kalitatea nabarmen hobetuko duten gizarte-, hezkuntza- eta ekonomia-garapenerako aukerak sortzeko asmoz. Proiektu horren zeharkako parametroak aipaturiko jarduera-guneetako giza eskubideekin, genero-berdintasunaren aurrerakuntzarekin eta emakumeen jabekuntzarekin lotuta daude.

3.5.3 Laguntza Humanitarioa

Aurreko urteetan bezala, BBK-k egoera humanitario berezietan lagundu du, batez ere bizitza asko galtzea eta oinarrizko azpiegiturak narriatzea eragin duten hondamendi naturalen kasuan. Alor horretako esku-hartze nagusia **erantzun solidarioko mekanismoak** aktibatzea izan da: horretarako irekitako kontuetan funtsak bildu eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera jardun du, bildutako funtsak batu eta **eraginkortasunez erabili eta ekitatez banatuko** direla bermatzeko.

Ikuspegi horretatik, 2013an laguntza-kontu bat ireki zen Filipinas suntsitu zuen Haiyan tifoiaik kalteturiko pertsonen oinarrizko premiak eta beharrak estaltzera zuzendua, aurrekaririk gabeko hondamendia eragin baitzuen herrialde hartan. Ekaitzak milaka herri birrindu zituen, milioi bat pertsona baino gehiago behartu zituen lekuz aldatzera eta 10.000 hildako baino gehiago utzi zituen.

Halaber, apirilean beste kontu bat ireki zen Bermeoko sute handiak kalteturikoei laguntzeko, azken 30 urteotan behintzat Bizkaian izan den suterik larriena. Gertaera hark erabat erraustu zituen hiru eraikin kostako herri honetako parte zaharrea Juan de Nardiz, Intxausti eta Erremedio Kanean, 70 lagun etxebizitzarik gabe utzi zituen eta aldi baterako beste nonbait eman behar izan zitzaizkien ostatu.

4. BBK beka-programa

Programa hau BBK Gazte Lanbidean Fundazioaren bidez azken urteotan egindako ekintzen ondorengoa da, eta gazteen langabeziaren aurka BBK Gizarte Ekintzako aitzindarietako bat da gaur egun. Prestakuntza teorikoa, baina batez ere praktikoa, kualifikazio pertsonalaren giltzarri da, eta, beraz, pertsona batek lan-munduan sartzeko daukan oinarrizko erreminta. Gaur egungoa bezalako lan-ingurune batean, langabezia-tasa oso altuak eta lan prekarioak nagusi dira. Hori dela-eta, enpresen beharrezanetara egokitutako **kalitatezko prestakuntza unibertsal bat jaso ahal izatea, ezagutzan oinarritutako gizarte lehiakorrean** aurrera egiteko ezinbesteko tresna da.

4.1 Lan-praktiketarako beka-programa

Ordaindutako prestakuntza-praktiken bidez, langabezian dauden titulaturako gazteek esperientzia jasotzeko helburuarekin, BBK-k enpresa-elkarte eta instituzioekin lankidetzakordioak hitzartu ditu joan zen 2013an. Programa hauek gazte titulatuak **lehen lan-esperientzia** izatea ahalbidetu dute, eta enpresek formalizatzen dituzten lan-kontratu gehienak aurrez ezagutza izan ondoren egiten dira.

2013an BBK-k mantendu egin ditu bere beka-lerroak praktikak atzerrian egiteko. Honela, lan-praktiketarako BBK-k eskainitako 195 beketatik, %65 **Bizkaiko** enpresetan praktikak egiteko eman dira eta %35 **atzerriko** enpresetan praktikak egiteko, honako banakapen honen arabera:



4.1.1 Praktikak Bizkaiko enpresetan:

- ✓ 55 beka **BBK-Deustulan** programaren bidez, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, eta gazteei zuzenduta. Programa honetan Espezializazio-ikastaro bat sartzen da, enpresa edo erakunde batean 3 hilabetez ordaindutako praktikekin osatzen dena.
- ✓ 15 beka **Lanbide eta Peñascal Fundazioarekin** gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden lanbide-prestakuntzarako, Prestakuntza Dualeko programetan: urtebetean prestakuntza-aldia eta enpresetan egindako lan-garapen aldia uztartzen dituzte.
- ✓ 20 beka, **CEBEK-ekin elkarlanean**, 6 hilabetez Bizkaiko enpresetan praktika ordainduak egiteko.
- ✓ 15 beka **Ekonomialarien Euskal Elkargoaren bidez**, 6 hilabetez Bizkaian kolektibo honetakoak diren enpresetan praktika ordainduak egiteko.
- ✓ 20 beka praktika ordainduak egiteko *Sestao Enplegu Plana* programaren esparruan, eta horren bidez, aurrez lan esperientziarik gabeko Sestaoko gazteek eta unibertsitate edo lanbide-heziketako titulazioak dituztenek lehen harremana eduki ahal izan dute lan-merkatuarekin. Programa ekinbide honetan zehar-prestakuntzarako modulu bat egon da (Enplegurako gaitasun pertsonalak), 50 ordukoa. Programa arrakasta handiz gauzatu da, eta kontratazio-indizea praktikak egin dituzten gazteen %40koa izan da.
- ✓ 10 gazte baliatu dira Peñascal Kooperatibak eta BBK Fundazioak sorturiko bekez, prestakuntza eta ikaskuntza uztartuz, lanbide-heziketa dualerako oinarriak ezartzeaz gain. Beken helburua gazteen lanbide-prestakuntza da, enpresako lan-jarduera ordaindua prestakuntza-jarduerarekin txandakatuz. Prestakuntza-jarduera honek aukera ematen die Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko.

4.1.2 Praktikak atzerriko enpresetan:

- ✓ 57 beka **Global Training** programan, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailarekin lankidetzan. Programa hau Unibertsitate edo Goi Mailako Lanbide Heziketako titulazioa duten gazteentzat da, eta enpresa-

praktika ordainduak egin ahal izan dituzte 6 edo 9 hilabetez hainbat enpresatan Belgikan, Italian, Norvegian, Mexikon, Alemanian, Txilen, Suedian, Polonian, Argentinan, Islandian eta abar. Deialdi honetan arlo hauetan prestakuntza duten gazteak aukeratu dira: Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan, Enpresa Zientzietan, Ikus-entzunezko Zientzietan, Telekomunikazioetako Ingeniaritzan, Maisutzan, Ingeniaritza Teknikoan, Kazetaritzan, Arkitekturan, Publizitatean eta Harreman Publikoetan. Deialdi hau oso arrakastatsua izan da, eta Bruselan jardunbide egoki gisa aurkeztu da.

- ✓ **Martxan IX** 20 beka, Europako enpresetan praktikak egiteko programa Leonardo da Vinci Mugikortasun Programak Laguntzeko deialdiaren barruan. Joan den urtean bekadunen titulazio nagusiak hauek izan dira: Ingeniaritza, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Arkitektura, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Turismoa, Itzulpen eta Interpretazioa, eta Ikus-entzunezko Komunikazioa. Beka hauek Italia, Irlanda, Portugal, Alemanian eta Polonian egin dira.
- ✓ EHUekin elkarlanean **Leonardo da Vinci-EPEZ** programaren 50 beka, Europar Batasuneko Leonardo Bekaren barruan kokatuta.



4.2 Prestakuntza Espezializatua Eskuratzeko Beka Programa

2013an BBK-k jarraitu du Unibertsitate-Masterrak egiteko 2011n hasitako beka-programa eskaintzen, **prestakuntza eta, beraz, gure gazteen enplegarritasuna hobetzeko** apustu estrategikoaren baitan. Oraingoan deialdian 55 beka sartu dira master eta gradu ondoko prestakuntza egiteko Deustuko Unibertsitatean, UPV/EHUn eta Bilboko Merkataritza Ganberan.

Diru-laguntzek masterraren zenbatekoaren %50 estali dute, 1.000 euroko mugarekin.

4.3 Prestakuntza Osagarriko Beka Programa

Aurreko urteetan bezala, BBK-k beka sorta garrantzitsua eskaini du unibertsitate-ikasleen mugikortasun akademikoa errazteko, **Erasmus Programaren** barruan, Europako Batasuneko estatuetan. Jarduera hau Kutxa Fundazioa eta Vital Kutxarekin batera egin da. BBK-k Deustuko Unibertsitateko eta EHUko ikasleei 320 beka eman dizkie.

2013an BBK-k jarraitu du **BBK-Deustu Bikainari** programari laguntzen; maila akademiko handiko eta egoera ekonomiko urriko gazteentzat da, goi-mailako prestakuntzara irits daitezen. Beka lortu duten 23 ikasleak, besteak beste, graduak egiten ari dira Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan, Hizkuntza Modernoetan, Piskologian, Ingeniaritzan, Zuzenbidean, Gizarte Zientzietan, Giza Zientzietan eta Lehen Hezkuntzan. Programak matrikularen zenbatekoaren %80raino finantzatzen du, eskatzailearen egoera ekonomikoaren arabera.

4.4 Ikerketarako Beka Programa

2011n hasitako ildo honetan, BBK-k iaz honekin erlazionaturiko ikerketa-beka hauek izan ditu:

- ✓ **Dravet Sindromea ikertzeko beka.** BBK Fundazioak, Dravet Sindromearen Fundazioarekin eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko "Severo Ochoa" Biologia Molekularreko Zentroarekin (CMBSO) lankidetzan jarraitu du, eta beka bat



finantzatu du oinarri genetikodun epilepsien eremuan ikerketa-lerro berriak garatzeko.

- ✓ **WOP ikerketa-beka.** Neuroendekapenezko gaixotasunekin loturiko terapietan ikerketa-proiektuak sustatzeko eta finantzatzeko lan egiten duen Walk on Project Elkartearekin izandako lankidetzazabalen markoan, BBK-k bi urteko iraupena izango duen beka bat eskaini du eta aukera eman du doktoratu ondoko ikertzaile bat txertatzeko nazioarteko proiektu batean, hain zuzen ere, ama-zelula eta botika eragingarrien tratamendu konbinatuei buruzko ikerketak egiten dituen gaixotasun desmielizanteak dituzten pazienteentzat.
- ✓ Horrekin batera eta ingurumenarekin loturiko ikerketa-eremu berri bat irekitzeko asmoz, 2012. urtean BBK-k Aranzadi Zientzi Elkartearekin lankidetzan abian jarri du **BBK-Urdaibai Bird Center** izeneko proiektua. Horri esker Natura eta Ingurumenarekin loturiko ikasketetan tituludunak diren 5 lagunek ikerketa-praktika ordainduak egingo dituzte Artegako Urdaibai Bird Centerreko instalazioetan. Praktika hauen helburua da ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea habitaten kudeaketa eta erabilerarekin, zientziaren hedakuntzarekin eta natura-guneen balio eta baliabideekin zerikusia duten eremuetan. Prestakuntza praktikoa honen xedea “enplegu berde”, ikerketa, ekoturismo eta ingurumen-aholkularitzarekin zerikusia duten arloetan enplegua sortzea da.
- ✓ BBK Fundazioak eta Síndrome de Dravet Fundazioak hitzarmena egin dute, eta ondorioz **EIC BBK** deituriko e-health berrikuntza-zentro bat sortu da. Ermuako Udalak lagatako Izarra Center eraikinean dago. Zentro honetan ikerketa-proiektuak garatuko dira informatikaren inguruan gaixotasun arraroentzako sendabideak bilatzen aurrera egin ahal izateko, baita ere gaixotasun hauek dituztenen eta beraien familien bizi-kalitatean hobekuntza lortzeko ere.

BBK Fundazioak proiektu honetan lagundu du, eta ikerketa-lana 3 pertsonak egingo dute (2 informatikari garatzailek eta proiektu-buru batek).

4.5 Arte eta Kultura alorreko Sormena sustatzeko Beka Programa

BBK-k artista gazte eta sortzaileei ematen dien laguntzaren barruan, 2013an 45 beka eman dira guztira:

- ✓ 24 beka arte-programak garatzeko **Bilbao Arte Programaren** esparruan, arte-sorkuntzarako lekuak aldi baterako lagatzea ahalbidetuko dutelarik; baita ere produkzio-proiektuak egitea grabatu eta serigrafia, teknologia berriak, eskultura, argazkigintza eta filmatze-platoa modalitateetan; edo arte-produkzioko tailerretan laguntzaile gisa aritzea, baita egoitza ostaturako ere Bilbao Arte Fundazioko artisten artean partekaturiko etxebizitzan.



- ✓ 33 EGO bekei esker beste horrenbeste gazte sartu da Euskal Herriko Gazte Orkestran urtebetez, nazioartean ospetsuak diren irakasleekin lan egin ahal izateko eta, honela, esperientzia garrantzitsua lortzeko orkestren eta ganberako musikaren eremuan.



- ✓ 2 beka **Bilboko Arte Ederretako Museoarekin** lankidetzan. BBK Fundazioak eta Bilboko Arte Ederretako Museoak 2 ikerketa-beka eskaini dituzte, arte-historiari buruzko azterketak eta museoako bilduma iraunkorreko lan edo artistei edo, oro har, euskal artista plastikoei buruzko ikerketak sustatzeko helburuarekin.

4.6 Bilbao BBK Talent

Programa hau BBK-Gizarte Ekintzak Bizkaiko ekonomia eta gizartea garatzeko apustu estrategikoaren barruan sartzen da **talentua erakartzearekin** lotuta. Ikuspegi horretatik, BBK-k gizarte- eta ekonomia-ehunean talentuaren berrikuntza eta garapena sustatzeari begira dauden ekimen guztiekiko konpromisoa aitortzen du, bidezko eredu soziala, harmonikoa eta lehiakorra eraikitzeko ezinbesteko tresnatzat ulertuta .

BBK Talent programa **bikaintasun akademiko handia duten ikertzaileak hartzera** bideratzen da, EAE kanpotik datozenak, eta Bizkaian finkatuko direnak irakaskuntza- edo ikerketa-jarduerak egiteko era ez-iraunkorrean. Programako zerbitzuen erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna onuradun izan litezkeen pertsonen espektro zabal osoari bermatzeko helburuarekin, Bilbao BBK Talent-en funtsezko zutabeetako bat lehenengo jarduera-hilabeteetan hau izan da: erakunde-zko harremanak eta lankidetzak- lokarriak sendotzea Bizkaian zientzia ikertzeko, irakasteko eta kudeatzeko dauden zentro nagusiekin.



Programa zentroa erabiltzen duten ikertzaileen eta beraien familien eskura jarritako zerbitzu multzo bat da, eta helburua eta hari gidaria da ingurunera egokitzen laguntzea Bizkaian egingo duten egonaldiak iraun bitartean. Zerbitzu horien artean daude **banako ostatua ematea** BBK Sarriko zentroarekin egindako hitzarmenaren bidez, eta horrek aukera ematen du Bilbao BBK Talent programaren eskura 32 apartamentu guztiz hornituak jartzeko.



2013ko maiatzaren 31n Bilbao BBK Talent-era lehenengo ikertzaileak iritsi zirenetik, guztira 52 pertsona instalatu dira, horietako 42 ikerketan ari dira eta gehienak gizezkoak dira. Beren lana, batez ere, BCAM edo 'Matematika Aplikatuaren Euskal Zentroan', Deustuko Unibertsitatean eta CIC Biogune-n egiten dute. Ikertzaileen egonaldiak gehenez 365 egunekoak -18 egoiliarrek- eta gutxienez 15ekoak izaten dira. Egoiliarren jatorriari dagokionez, laurden bat baino gehiago Espainiakoak dira, %13 AEBetakoak eta %10 Irangoak, guztira 18 nazionalitatetakoak daudelarik.

Nabarmentzekoa da, halaber, ikertzaileen gogobetetze-maila handia beren egonaldiak amaitzen dituztenean. 0-10 arteko eskalan 8,5 puntu baino gehiagoko balorazioa ematen diete zentroak eskaintzen dituen zerbitzu guztiei. Azpimarratzekoak dira egoitzan egiten duten egonaldi orokorraz, harremanaz eta jasotako informazioaz, edota ikerketa-zentroan eta hirian bertan egindako egonaldiaz egiten duten balorazio ona. Horren haritik, Bilbao BBK Talent-ek ahalegin garrantzitsua egin du jarduera sozio-kulturalak antolatzeke, ikertzaileen artean lankidetzaren pertsonal eta profesionalerako dinamikak sortuko dituztenak, beraien gizarteratzea bultzatzeko asmoz.

Bilbao BBK Talent programa dagoen lekua, gainera, iraunkortasuneko LEED ziurtagiria duen eraikina da. BBK Sarriko zentroak jaso zuen 2013an gai honetan munduan ospe handiena duen erakundeak ematen duen ziurtagiria: Leadership in Energy and Environmental Design (LEED); "U.S. Green Building Council"ek AEBetan garaturiko nazioarteko ebaluazio-sistema da, irizpide iraunkor eta eraginkortasun handikoetan oinarrituriko eraikuntzak sustatzeko.

4.7 BBK Abandoibarra

2013an BBK-k berriro egin dio UPV-EHUri BBK Abandoibarra izeneko eraikin berri baten lagapena, **Unibertsitateko Paraninfo** gisa erabiltzeko. BBK-k guztiz ordaindutako 35 milioitiki gorako inbertsioaren ondorioz, instalazioek eraikitako 9.000 m²-ko azalera dute, era honetan banatuta: 450 lagun hartzeko moduko areto nagusia, Errektore eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarentzako lehenengo solairua, 161 lagunentzako hitzaldi-areto bat, prentsaurrekoetarako gela bat 64 lekurekin, 4 erakusketa-gela eta zerbitzu orokorretarako bulego batzuk, eta horrez gain, lurrazpiko aparkaleku bat 31 ibilgailuentzat eta biltegi batzuk.

5. Ezgaitu eta Mendekoei laguntzea

Orain dela 50 urte baino gehiago hasi zen BBK arlo honetan esku hartzen. Beraz, BBKren gizarte-ekintzaren **bloke nagusietako** bat da.

Ezgaitasun- eta mendetasun-fenomenoak egoera-espektro oso zabala hartzen du, eta lehenengo eta behin gaia mugatzea eskatzen du, esku-hartzearen xede diren taldeak ahalik eta zehatzen ezarri ahal izateko. Ezgaitasun- edota mendekotasun-egoeran dauden pertsonak era honetan defini ditzakegu: jaiotzetiko edo zahartzearen ondoriozko gabezia fisiko, psikiko edo intelektualak dituztenak, eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko etengabeko laguntza behar duten pertsonak.

Azken hamarkadetan familia-ereduetan eman diren aldaketek, ohiko zaintzailea zen emakumearen laneratze progresiboak eta azken aldaketa soziologikoez gehiago edo gutxiago zabaldua dagoen kontzientzia ekarri dute ezgaitasuna duten pertsonen babesa ezartzeko beharraz, baita bizimodu duina eta ahalik eta autonomiadun handienarekin egiteko duten eskubidearen aitortza ere. BBKren gizarte-ekintza mugitzen den eta mugitu behar den ingurunea ondokoek markatzen dute: batetik, administrazio publikoen esku-hartzeak, ezgaitasuna eta mendekotasuna dutenen eskubide subjektiboen politika bermatzaileen inplementazioaren esparruan; eta bestetik, kolektiboak eta bere inguruneak hezkuntzari, laneratzeari eta aisialdi normalizatuaren parte hartzeari dagokionez dituzten itxaropen berrien sorrera.

Bestalde, ezin utzi aipatu gabe azken urteetan sortu den fenomeno berri bat, autore batzuek “agerpen isila” deitzen dutena, bizi-itxaropena handitzearen ondorioz gizarte gisa aurrean ditugun erroka berriei dagokiena. Mendetasun-egoeren handitze nabarmenari buruz ari gara, egoera konplexuak sortu dituen, esate baterako mendetasun-maila bat izanik mendetasun handiagoa duten beste batzuek arduratu behar diren egoera. Gaur egun sarri ematen den egoera bat da, adibidez, guraso nagusiak ezgaitasunen bat duten seme-alabekin bizi direnean, edo adimen-urritasuna duten pertsonen guraso nagusiak zaintzen dituztenean.



Hori guztia nahikoa larria ez balitz, egungo krisi ekonomikoaren egoerak BBKren politiken definizioan kontuan izan beharreko elementu berri batzuk ekarri ditu, irabazi asmorik gabeko gizarte-entitate den aldetik. Batetik, mendetasuna duten pertsonentzat eta horien zaintzaileentzako laguntzei loturiko aurrekontu publikoen jaitsiera orokorra; baina bestetik, enpleguaren suntsitzearen ondorioz, kolektibo berri baten sorrera, lan egiteko moduan dagoena, eta behin-behinekoz edo betikoz, liberatuta geratzen dena bere inguruan mendetasuna duten senideak zaintzeko.

Testuinguru hain konplexu honetan inoiz baino beharrezkoagoa da beharren eta lehentasunen azterketa sakona egitea. Era horretan, BBK-k ekimen publiko eta pribatuak estaltzen ez dituen kolektibo horientzako arreta-guneak aurkitu ahal izango ditu, betiere bere esku-hartze sozialaren **osagarritasunaren** printzipioa mantenduz.

2013. urtean, egoera ekonomikoa larria izan arren, BBKren esku-hartzea mantendu egin da, hiru bloke handitan multzokatuta:

- ✓ Mendetasuna dutenen gaineko esku-hartze zuzena, laguntza-programen bidez.
- ✓ Adimen-ezgaitasun eta gaixotasun mentalaren eremuetan esku-hartzea, batez ere Ola BBK eta Eragintza eta Argia fundazioen bidez.
- ✓ Ezgaitasun- edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak laguntzen dituen gizarte-ehunarekin lankidetzat. Entitate mota hori indartzea eta bere jardueran laguntzea da, eta jarraituko du izaten, gure helburu estrategiko nagusietako bat

ERABILTZAILEAK	
OLA BBK ZENTROA	
Helduarorako zentroa	27
SAIOA zerbitzua (Harrera, Informazioa, Orientabidea)	3.084
Lan Orientabide Zerbitzua	511
Tailer Okupazionala eta Enplegu Zentro Berezia	144
Aldi Baterako Egoitza	520
Eguneko Zentroa	21
Asteburuko atsedeen-programa	85
ERAGINTZA FUNDAZIOA	569
ARGIA FUNDAZIOA	251
ASPALDIKO FUNDAZIOA	1.107
ABADE OHORAGARRIEN BEGOÑAKO EGOITZA	25

5.1 Ola BBK zentroa

BBKren Gizarte Ekintza beti izan da erreferentziako entitate bat, adimen-urritasuna dutenen arretan aitzindaria. Bai hezkuntza-erantzunean, bai lan babestuaren garapenean, BBK-k 50 urte baino gehiago daramatza arlo honetan lan egiten duten pertsona eta entitateei laguntzen. **Erreferente izateko** gaitasun hori mantendu nahian, eta sistema publikoak hezkuntza-funtzioa beregain hartu ondoren, adimen-urritasuna duten pertsonen eta beraien familiek dauzkaten benetako beharrezkoak zeintzuk diren jakiteko etengabe jarraitzen dugu ikertzen. Testuinguru honetan gure esku-hartzeak bi arlotan sakontzen jarraitu behar duela berresten dugu: gizartearen **zahartze** orokorra eta pertsona ezgaituen zahartze espezifikoa. Gizarteko errealitate berrietarako baliabide egokiak txertatzeko erronka eta kolektibo honen **laneratzean aurrerapausoak** emateko beharra izango dira datozen urteetan gure jardueraren oinarriak.

Eredu honen adibiderik nagusia **BBKren Ola Zentroa** da, gaur egun, oraindik, beharrian berriei erantzuteko, instalazioen eta zerbitzuen eraldaketa eta egokitze-prozesuan jarraitzen duena. Bertan, alde batetik, pertsona ezgaituei zuzeneko laguntza emateko proiektuak aurrera eramaten dituzte, eta, bestetik, ezgaituen familiei eta arlo honetan lan egiten duten gizarte-eragileei babesa ematen zaie. Ola BBK zentroan garatzen diren programak egonkorrak izan daitezten eta gizarte-eragin handiagoa izan dezaten, BBK-k sektore honetan protagonista den administrazio publikoarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta arlo honetan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-entitateekin **era koordinatuan** egiten ditu esku-hartze hauek.

Ekipamendu honen helburua pertsona ezgaituen beharrezkoak **erantzun integrala** ematea besterik ez da, eta arreta, ikerketa eta balio erantsi handiko zerbitzuak ematen aitzindari izaten jarraitzea, bai ezgaituentzat beraiantzat, eta baita beraien zaintzaz arduratzen direnentzat ere. Ikuspegi horretatik honako zerbitzu hauek ditu:

- ✓ **Aldi Baterako Egoitza.** Aldi Baterako Egonaldietarako Egoitzak beharizan berriei aurre egiteko zerbitzu adierazgarriena izaten jarraitzen du, hain zuzen, bizi-itxaropena handitu delako eta familia-egituretan aldaketak eman direlako. 2006ko ekainean ireki zenetik, ezgaituak beraien kargu dituzten familiei zuzendutako atsedena hartzeko zerbitzu honek guztira 5.036 eskaera izan ditu, eta 2.449 egonaldi egin dira bertan, 520 pertsonari dagozkienak.
- ✓ **Helduarorako Zentroa** aldi baterako beste baliabide bat da, adimen-ezgaitasuna dutenen bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz haien zaintzaileen inguruetan sortzen diren behar eta erronkei erantzun nahian sortu dena. Zentro honek arreta zuzena eskaintzen die adinean gora doazen eta dagoeneko oinarrizko trebetasunik ez dutenei lan-eremuan jarraitu ahal izateko, eta beraz, bestelako gizarteratze-jardueren beharra dutenei. 2013an behin betiko zerbitzuetara 2 lagun bideratu dira eta 2 berri sartu dira, guztira 27 erabiltzaile egonkorren taldea mantenduz.
- ✓ 2013an ezgaitasuna duten familiei zuzendutako **SAIOA Laguntza, Informazio, Orientabide eta Babes Zerbitzuak** 3.084 espediente artatu ditu. Horrez gain, 1.159 pertsona artatu ditu bakarka, guztira taldea osatzen duten profesionalek egindako 2.242 esku-hartze zuzenen barruan.
- ✓ Bestalde, **Lan Orientabiderako Zerbitzuak** bere horretan mantendu du bere jarduera-maila, ezgaitasuna dutenei nabarmen eragin dien langabezia-hazkunde ikaragarriaren testuinguruan. 2013an programa honen bidez 511 elkarrizketa egin dira eta 524 lan-kontratu kudeatu dira Enplegurako Zentro Bereziatan.
- ✓ **Tailer Okupazionalak** eta **Enplegu Zentro Bereziak**, krisialdian gauden arren, beren jarduerari oso-osorik eutsi diote, 144 lanposturekin guztira. **Eguneko zentroa**, lan-
- ✓ **Eguneko zentroa**, lan-merkatu babestuan sartzeko oinarrizko gaitasunik gabeko adimen-urritasuna dutenei zuzendutako programa. Gorabide Elkarrekin kudeatu eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera finantzatutako zentro berri hau familia zaintzaileen kontziliazioari begira eta ezgaitasuna duten pertsonen zuzenean artatzeari begira lan egiten du, zenbait trebetasun sustatuz eta garatuz, besteak beste, gizarteratzeak, norbere burua zaintzekoak eta psikomotoreak. 2013. urtean Eguneko Zentroak 21 erabiltzaile iraunkor izan ditu, eta aldi baterako bat. **Asteburuko atsedeen-programa:** 2012ko apirilean atsedeen-zerbitzu berri hau
- ✓ **Asteburuko atsedeen-programa:** 2012ko apirilean atsedeen-zerbitzu berri hau egunez ere ireki zen. Horrek 85 laguni 895 zerbitzu ematea ahalbidetu du.

Programa hauez guztiez gain, Prestakuntza Jardunaldiak antolatu dituzte Zentroan dauden entitateen artean eta hainbat gizarte- eta enpresa-eremutako 400 lagun bertaratzea ahalbidetu dute.

5.2 Eragintza Fundazioa

Fundazio hau BBK-k sorturiko Eragintzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta CEBEK-ek sortua da, eta bere helburua Bizkaian **epe luzerako buru-gaixotasunak dituzten pertsonen errehabilitazioa, gizarteratzea eta laneratzea** da, beren gaitasunak garatzera bideratutako gizarteratze- eta laneratze-plan pertsonalizatuaren bidez. 2013an Fundazioaren zerbitzuak 569 lagunek erabili dituzte, haren zerbitzuez baliatuz.

Pertsona bakoitzaren errehabilitazio-planetan antzemandako beharren arabera Fundazioak prestakuntza berezia ematen die beren lan-gaitasuna, autonomia eta bizi-kalitatea

hobetzeko xedez, baita eguneroko gorabeherei aurre egin ahal izateko oinarriko trebetasunei buruzko ikastaroak ere. 2013an, 289 lagunek parte hartu zuten Deustun (Bilbo) Fundazioak duen errehabilitazio-zentroan emandako 25 prestakuntza-ikastaroetan.

Bestalde, Fundazioak dituen bost zentro okupazionaletan iaz buru-gaixotasunak zituzten 99 lagunek lanerako oinarriko gaitasunak lortu zituzten, lanpostu babestu edo arrunt batean lanean hasi aurretik. Lan aurretiko prestakuntza hauei esker, iaz 17 lagunek lortu zuten lanpostu egonkor bat, 8k enplegu babestuan eta 9k enpresa arruntetan.

2013an Lanbidek homologatutako hiru prestakuntza-ekintza burutu zituen Fundazioak eta bi jarduera abiatu. Horiei esker 36 lagunek lortu dute Lanbide Gaitasunaren agiria eta enpresetan praktikak egin dituzte, lan-merkatuan txertatzeari begira. Pertsona hauek 2014ko lehen hilabeteetan praktikak hasi dituzten 24ri gehitu behar zaizkie.

Bestalde, enplegu babestua sustatzeko xedez, fundazioak 1993an sortu zuen **Lavanindu SL Enplegurako Zentro Berezia**, industria-garbitegia. Gaur egun 128 lagunetik gora dago bertan lanean, horietatik 111 ezgaitasuna duten pertsonak dira, eta horien artean 63 buru-gaixotasuna dutenak. Ordaindutako enplegua izateaz gain, behar duten laguntza pertsonal eta soziala jasotzen dute.

Azkenik, Hirugarren Sektoreko erakundeekin eta lan babestuko enpresa batzuekin elkarlanean, Fundazioaren erabiltzaile diren eta buruko gaixotasuna duten 62 pertsonari lanpostua mantentzen edo aurkitzen lagundu die Fundazioak, eta horietatik 24 lan arruntetan ari dira.

Halaber, beste ekitaldi batez, Fundazioaren jabetzakoa den eta Argia fundazioak kudeatzen duen Galdameseko Zurimendi egoitzak buru-gaixotasun larria duten 20 pertsona (14 gizonezko eta 6 emakumezko) hartu ditu.

5.3 Argia Fundazioa

1990ean hasi zuen bere jarduera Argia Fundazioak, eta bere esku-hartze soziala laguntza-jarduerak eta zerbitzuak abian jartzera doa honako arlo hauetan: Bizkaian **gaixotasun mental kronikoak eta nahaste psikikoak dituztenen prebentzioan, tratamenduan, errehabilitazioan eta gizarteratzean**. 1994tik, Argia Fundazioaren patronatua Trinitarioen Komunitateak, BBK-k eta Bilboko Elizbarrutiak osatzen dute.

Helburu hori lortzeko, fundazioak zenbait programa garatu ditu. 2013an, hain zuzen ere, buru-gaixotasuna duten 251 pertsona artatu ditu. Zerbitzu horiek ondoko hauek dira:

- ✓ **Eguneko Ospitalea**, Algorta-Getxoko Trinitarioen antzinako eraikinean dagoena. Zerbitzu honek, era malguan, zentroak eskaintzen dituen jarduera terapeutiko eta zereginen inguruko arreta indibidualizatua eskaintzen du. 2013an, guztira 104 pertsonarekin egin du lan, horietatik 6 ospitalez kanpoko kontsultetan.
- ✓ **Babespeko etxebizitzak**, 2013an 128 laguni ostatu eman dien komunitate-baliabide eta euskarri soziala. 25 pisu hauek buru-gaixotasun larri edo kronikoa izan, baina autonomia maila nahikoa duten lau-sei pazienterentzako bizikidetzaren unitate bezala funtzionatzen dute.
- ✓ **Zurimendi Egoitza** buru-gaixotasun kronikoa duten pertsonentzat egoitza-zerbitzua sustatzen duen beste baliabide bat da. Ekipamendu honen helburu nagusia gaixorik dauden pertsonen gaitasun sozialak sustatzea eta beraien egokitzapen psikosoziala

ahalbidetzea da. 2013an 19 lagun artatu dira eskaintzen dituen 18 postuen bidez. Eguneko 24 orduetan gainbegiratze-zerbitzua edukitzeaz gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu: familia eta etxeko arreta eta aisialdiko jarduerak.

- ✓ **Gizarte Klubak** aisiaz gozatzea, gizarte-harremanak eta buru-nahaste larriak dituztenen autodeterminazio-gaitasuna bultzatu nahi du. 2012an martxan jarri ondoren eta 2012an eta 2013an egindako proba pilotuaren ostean, klubak bere jarduerari ekin zion, buruko arazo larria dutenen gizarteratzea eta haien bizi-proiektuaren berreskuratzea errazteko helburuarekin.

5.4 Aspaldiko Fundazioa

"Aspaldiko Etxea" hitzarmena Bilbon sinatu zuten BBK-k, Bilboko Elizbarrutiko Caritasek eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1997an. Hitzarmen honen bidez, *Aspaldiko* Fundazioaren sorrera sustatu zen *Aspaldiko* Gerontologia Zentroa kudeatzeko. Zentro hau Portugaleteko Kanpazar Gainean dago eta BBKrena da eraikina.

Aspaldiko Gerontologia Zentroak zazpi solairutan banatutako Egoitza du. Solairu hauek Egoitza Unitateak (URA) deitzen dira eta guztira 274 plaza daude. URA bakoitzak, egoitza txiki bat bezalakoak denak, gune eta zerbitzu komunak dauzka: harrera, jangela, egongela, guztiontzako komunak, jardueretarako eta bisitetarako gela, erizaintza-gela, arreta medikorako bulegoa, etab.

Bi solairutan unitate psiko-geriatrikoak daude 86 postuarekin, eta bertan narriadura kognitibo larria edo oso larria duten pertsonak artatzen dira. Halaber, egoitzak aldi baterako Gizarte eta Osasun Egoitza Unitate bat dauka: 27 leku daude bertan gizarte- eta osasun-zaintza intentsiboak behar dituzten eta mendetasun egoeran daudenentzat.



Egoitza Unitateez gain, eraikinaren beheko solairuan, 1.237 m²-tan, *Aspaldiko* Gerontologia Zentroak bi Eguneko Zentro ditu. Bertan, mendetasun fisiko, psikiko edota soziala duten 56 laguni arreta integrala eskaintzen diete egunez, baita familiari laguntza eman ere.

Joan zen 2013an Zentroan eskainitako zerbitzu guztien artean 1.107 lagun artatu ziren.

5.5 Eguneko zentroak

Eguneko Zentroak mendetasuna duten pertsonentzako baliabideak dira, beraien ingurune sozialean eta familiarrean txertatuta jarraitzeko aukera ematen diete eta Egoitzen alternatiba erreala eta eraginkorra dira. Bertan, zainketa pertsonalak eta arreta integral espezializatua eskaintzen dira, **autonomia pertsonal eta soziala hobetzeari** (errehabilitazioa eta mantentzea) eta **komunitatean integratzeari** begira. Era horretan, erabiltzaileen eta haien senide eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen da.

BBK-k Bizkaiko Eguneko Zentroen Sarearen sorkuntzan, mantentzean eta sendotzean parte hartu du, Foru Aldundiarekin eta udal erakunde publikoekin aliantza estrategikoak eginez. Gaur egun, BBK Gizarte Ekintzak 28 Eguneko Zentro sortu eta abian jartzen lagundu du, eta, gainera, bere jabegokoak ziren 11 eraikin laga ditu horretarako.

En 2013an BBK Gizarte Ekintzak Getxon dagoen 500 metro koadroko lokal bat laga dio Uribe Kosta elkarteari, adimen-urritasuna eta laguntza-behar zabal eta orokortuak dituzten helduentzat eguneko zentro gisa erabil dezan.

Kokaleku paregabean dago, oinezkoentzako pasealekuetatik eta merkataritza-gunetik hurbil: horrek eguneroko gauzak ikasten lagunduko die pertsona horiei, adibidez, erosketak egiten, igerilekura joaten edo garraio publikoa erabiltzen. Gainera, familiek Aisialdiko Klub gisa erabili ahal izango dute lokala arratsaldetan edo asteburuetan.

Lokala prestatzeko egingo diren lanen ondoren, aurreikusita dago zentroak zerbitzu ematea adimen-urritasuna duten 13 laguni, horietatik 8 Getxoko udalerrikoak eta 5 Leioakoak.

5.6 Bilbao BBK GoodHostel

Bilbao BBK GoodHostel adimen-urritasun eta fisikoa duten pertsonen kudeaturiko hiri-ostatu da. Bilboko Bolueta auzoan lehengo Iturlan lantegietan dago eta BBKren jabetzakoa da. Instalazio hauek 1967an inauguratu ziren eta orduan adimen-urritasuna zuten Bizkaiko pertsonentzako lehen lanbide-lantegia izan zen. Lau hamarkada geroago, Bilbao BBK Good Hostel-ek lekukoa hartu die esku-hartze aitzindari haiei eta **ezgaitasuna duten pertsonen kudeaturiko Europako lehenengo gazte-aterpetxea da.**

Bilboko hirigunetik 5 minutura baino ez dago, eta Lantegi Batuak-ek kudeaturiko BBK Bilbao GoodHostel-ek gazteei, familiei eta taldeei kalitatezko ostatu eskaintzen die oso prezio onean, **instalazio irisgarriekin**, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokituta eta zerbitzu-eskaintza erakargarriekin.



2013a izan da hiri-ostatu honen lehenengo urte osoa, eta bertan ahalmen-urritasunen bat duten 12 lagunek egiten dute lan. Urtean zehar Bilbao BBK GoodHostel-en 6.226 pertsonak hartu zuten ostatu, guztira 11.862 gau igaro zituztelarik bertan.

5.7 Jabetuz zentroa

Jose M^a Olabari kalean BBKren jabetzako lokal batean dagoen Jabetuz Zentroa BBK Gizarte Ekintzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko AFaren (Bizkaiko Alzheimer gaixotasuna dutenen familiakoen elkartearen) arteko lankidetzaproiektua da.

Zentroaren jardura nagusia **Alzheimerra dutenen autonomia pertsonala sustatzea** da gaixotasunaren hasierako faseetan, portaeraren nahaste larriarik ez dutenean, eta baita horien familia zaintzaileei arreta eskaintzea ere. Helburu horri begira, Zentroak hainbat tailer eskaintzen ditu beraien **autonomia funtzionala** ahalik eta denbora luzeenean mantentzeko asmoarekin: psikoestimulazio kognitiboa, plan terapeutiko intentsiboa, eguneroko plan terapeutikoa eta gaixoei terapiak. Halaber, gaixotasunari buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen du, baita prestakuntza-ikastaroak, laguntza psikologikoa emateko taldeak, arnasketa-programak eta zaintzaile nagusiei zuzendutako tailerrak ere.

5.8 Hondartza Denontzat

2004an abian jarri zen Hondartza Denontzat programa mugikortasunarekin lotutako ezgaitasunak dituzten pertsonen hondartzaz goza dezaten. BBK Gizarte Ekintzaren, Bidaideak Elkartearen, Heldu Federazioaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Getxo, Plentzia, Zierbena, Ibarrangelu eta Lekeitioko Udalen artean lankidetzan sorturiko proiektua da eta **mugikortasunarekin lotutako ezgaitasunak** dituztenei hondartzetarako irisgarritasuna ahalbidetzea eta gure hondartzez gozaraztea du xede. Aurreko urteetan bezala, BBK-k bere

gain hartu ditu arkitektura-mugak ezabatzeak sortzen dituen kostuak, eta baita bainua ahalbidetzeko behar diren azpiegiturak eta baliabideak ere.



2013an bainuaren laguntza-programa hau Ereaga, Plentzia, Area, Laida eta Isuntza hondartzetan gauzatu da, eta bereziki zuzendu zaie Bizkaian mugikortasun arazo larriak dituzten 3.000 laguni. Programaren bitartez, prestaturiko begirale-taldea jarri da beraientzat, eta baita hondartzatik eta uretatik ibiltzeko beren-beregi diseinatutako zenbait **laguntza-teknika** ere: uretako gurpil-aulkiak, makulu urlehortarrak... hori guztia egokitutako garraio-zerbitzu bereziarekin osatuta.

5.9 Dokudea zentroa eta elektronika-zentroa

Getxoko zentroan Lantegi Batuak-ek adimen-urritasuna duten pertsonen laneratze eta gizarteratzera bideratutako proiektu hau garatzen du 4.600 m²-ko eraikinean dauden bi lan-lerroetan.

Elektronika Zentroan 105 pertsona daude, horietako 98 ezintasunen bat duten pertsonak dira, eta muntaketa elektrikoak egiten dituzte, baita kableatuak, txartel elektronikoen fabrikazioa eta ekipamenduen mihizatze eta test bidezko probak ere. Zentroan dauden eta ezgaitasuna duten 98 pertsonetatik, 64k adimen-urritasunen bat dute, beste 8k buru-gaixotasuna eta 24k ezintasun fisiko edo sentsorialak.

Dokudea zentroak, bestalde, beren dokumentuak eraginkortasunez, seguru, leialtasunez eta isilpean kudeatzeko konponbideak eskaintzen dizkie enpresa eta erakundeei, aldi berean ahalmen-urritasunen bat duten pertsonak lan-munduan eta gizartean ongi txertatzea ahalbidetuz. Dokudea-n 36 ari dira lanean, eta horietako 27k dute ezintasunen bat.



5.10 Futubide zentroa

Futubide-k (**Fundación Tutelar Gorabide**) adimen-urritasuna dutelako beren burua gobernatu ezin duten eta legez ezgaituztat jo diren pertsonen tutoretza, kuradoretza edo/eta lege-defentsa egiten du.

BBK-k adimen-urritasuna dutenen eta horien familien bizi-kalitatearen arreta eta hobekuntzarako duen konpromisoaren ildotik, eta eremu honetan lanean ari diren gizarte-erakundeekin lankidetzan, BBK-k Futubide-ri bere eraikin bat laga dio, Bilboko Miribilla auzoan dagoena, han bere egoitza soziala jartzeko eta adimen-urritasuna dutenei eta babesik gabe daudenei eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak batzeko.

Eraikina egokitu eta hornitzeko lan guztietan lagundu du BBK-k, eta horien ondoren egoitza berria eta Futubide-k ematen dituen zerbitzuak batzen dituen zentroa ireki ahal izan da 2013an.

5.11 EM Labs

2013an Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioak, BBK Gizarte Ekintzaren laguntzaz, “*EM Labs virtual games*” programa garatzen jarraitu du, lehenengo lekua da **European serious games**-i aplikaturiko teknologia berrien bidez **Esklerosi Anizkoitza dutenen errehabilitazio birtualerako**.

Teknologia multimedian oinarritua, EM Labs-ek errehabilitazio birtualeko sistema eskaintzen du, 3D inguruneak eta Kinect teknologia uztartzen dituena. Mugimendua atzemanaz, analisi, grafiko eta txosten zehatzen modulu bat du, neuroendekapenezko gaixotasunak –adibidez, Esklerosi Anizkoitza bera– dituztenen aurrerapenen jarraipena errazago egin ahal izateko.

5.12 Apnabi Bizitza independentea

“*Bizitza independentea etxean*” proiektua ekinbide aitzindaria da, **teknologia berriak erabiliz autismoa dutenen autonomia** sustatzen duena; bizitza erdi-independentea egiten dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarturiko pisu batean. En 2013an BBK Gizarte Ekintzak proiektu honekin kolaboratzen jarraitu du, APNABI-Autismoa eta espektro autistako beste arazo batzuk dituztenen Bizkaiko Gurasoen Elkarteak garatua.

Ekinbide honetan parte hartzen duten pertsonen laguntza-premien diagnostiko pertsonalizatua egin ondoren, autonomia pertsonala bultzatzeko irtenbide teknologiko pertsonalizatuak identifikatzen dituen *living-lab* metodologiatik, Erandion dagoen etxebizitza batek hainbat baliabide domotiko ditu, eta espektro autistako arazoak dituztenen talde bati bizitza erdi independentea egiteko aukera ematen die. Etxean sartu eta irteteko hatz-marken sistema du, QR kodeak bideo tutorialak gorde eta komunikatzeko, komunikazio-aplikazioak (bideokonferentzia, txata, bloga, etab.) eta tablet gailuak; horrela, etxebizitza hau bere erabilzaileengana erabat egokitua eta komunitatean integratua dago.

5.13 Barriztu Programa

Caritasek kudeatu eta BBK-k zati bat finantzatzen duen Barriztu proiektuak mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen **etxebizitzak egokitzeko** egiten du lan, sarritan arkitektura-oztopoak kenduz. Artatutako pertsonen profila bere etxean bakarrik bizi den 74

urteko emakumezkoarena da, baliabide ekonomiko urriak dituen eta eguneroko bizitzako jarduerak egitea zailtzen dion nolabaiteko mendekotasun mailaren bat duena.

5.14 Beste esku-hartze batzuk

BBK-ko Gizarte Ekintzaren Laguntza Programak pertsona nagusiei zuzentzen dizkie bere laguntza gehienak eta baliabide gehien bereganatzen duen ekintza-ildoetako bat, hain zuzen, mendekotasunaren arloan ekimenak finantzatzera bideratzen dena da. 2001ean lehen edizioa egin zenetik, programa honen bidez ezgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako 1.677 gizarte-proiektu finantzatu ditu BBK-k. Guztira 31.468.807 euro eman ditu, gutxi gorabehera BBK-k 2001-2011 artean gizarte-laguntzetara bideratutako 64 milioi euroetatik %49,2.

Alor honetan 2013ko proiektu aipagarrienetako batzuk honako hauek izan dira:

✓ **EIC BBK (eHealth Innovation Centre)**

EIC BBK zentroa ikerketa soziosanitarioko proiektu berezia da munduan, Ermuan (Bizkaia) teknologikoki oso aurreratua den Izarra Centre eraikinaren instalazioetan kokatua.

BBKren diru-laguntzaz ikerketa informatikorako lantaldea sortu da, eta teknologia ezintasunaren zerbitzura jarri nahi du, Dravet Sindromea eta antzeko beste ahalmen-urritasun batzuk dituztenen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko, sozialki berritzailea den IKTen aplikazio bidez.

EIC BBK proiektuak hiru lan-ildotan lan egiten du, batez ere:

1. “Garapen Gela” jakintza-arlo anitzeko lekua da ikastetxeentzat, ezintasunari laguntza integrala eskaintzen diona logopedia edo psikologiaren aldetik teknologiaren laguntzaz (kinect eta Tablet-ak).
2. Smartphone aplikazio baten garapen teknologikoa familiak eta osasun-etxeak konektatzeko, gaixotasun arraroetan erreferente den espezialista batek gaixoei arreta jarri ahal izateko larrialdietan, tratamendurik egokiena jasoko dutela ziurtatzeko.
3. Microsoft Kinect teknologiaren bidez, etxeko errehabilitazio-programa garatzea, baita bihotzeko krisiak eta konbultsioak detektatzeko sistema bat ere mugimendu-sentsoreen laguntzaz.

EIC BBK sozial eta ekonomikoki proiektu iraunkorra da, erreferentziazko bazkideak dituena, adibidez Microsoft. Arazoa duten familiei laguntza emateaz gain, balio ekonomikoa eman nahi dio Bizkaiko Lurralde Historikoari.

✓ **Gaixotasun arraroetarako laguntza**

Ahalmen-urritasuna, mendekotasuna edo gaixotasunak dituztenei laguntzea izan da eta da BBKren Gizarte Ekintzaren lan-ildo nagusietako bat. 2013. urtean, BBK-k lankidetzan jarraitu du WALK ON PROJECTekin, **neuroendekapenezko gaixotasunak ikertzeko Elkartearekin**. Elkarlan honen barruan, elkarteak antolatu duen lehenengo

ESTROPATADA WOPen parte hartu du, eta Bilboko San Inazio auzoan 127 metro koadroko lokala laga dio elkarteari.

Lokal hau WOP Proiektuaren gizarte-sare zabalaren topaleku gisa izango da, eta koordinazio, boluntarioen prestakuntza eta gizarte-eragileen arteko networking lanak egingo dira bertan.

✓ **BUSTI ZAITEZ! – BUSTI ZAITEZ ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ALDE!**

2013ko uztailean XVI. Busti Zaitetz! programa gauzatu zen, Eugenia Epaltza Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioarekin elkarlanean egindako gizarte-sentsibilizazio programa. **Esklerosi anizkoitza daukaten pertsonenganako elkartasuna** adierazteko ekitaldia da eta Bizkaia eta Gipuzkoako hondartzetan eta Arabako igerilekuetan egiten da urtero uztailean. Honen helburua, nagusiki pertsona gazte eta emakumeei eragiten dien gaixotasunaz kontzientzia harrarazi eta sentsibilizatzea da, baita Errehabilitazio Integralerako Zentroak sortzeko funtsak lortzea ere.

✓ **BIZITZAREN AMAIERAN ZAINDU**

Duela hamarkada bat Santurtziko San Joan Jainkoarena Ospitalearekin elkarlanean **Zainketa Aringarrietako Unitatea** eta **Etxez-etxeko Zainketa Aringarrien Zerbitzua** abiatu ziren, eta orduz geroztik BBK-k Ospitalearekin lankidetzan dihardu, baita iragan 2013an ere

2002az geroztik, San Joan Jainkoarena Ospitalearen hegal bat berritzea, ekipatzea eta egokitzea diruz lagundu du BBK Gizarte Ekintzak, Zainketa Aringarrietako Unitatea eta Etxez-etxeko Zainketa Aringarrien Zerbitzua abian jartzeko. Azken hau Bilboko Ezkerraldeko 150 gaixo eta 150 zaintzaile hartzeko pentsatua dago, hain zuzen ere, uste delako gaixo terminalek beren etxean igaro behar dutela denbora gehien. Programa honek **gaixoaren bizi-kalitatea hobetzea** bilatzen du, arreta integral eta jarraituaren bidez, eta Lehen Mailako Atentzioarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta Santurtziko San Joan Jainkoarenaren Ospitalearekin berarekin koordinazioan.

6. Haur eta gazteei laguntzea

Kolektibo hauekin BBK Gizarte Ekintzak daukan esku-hartzeak erakundearen beraren hastapenetan dauka oinarria, hain zuzen, orain dela ehun urte baino gehiago. 1925ean bertan, Bilboko Udal Aurrezki Kutxak, gaur egun BBK denak, Sukarrietan instalazio batzuk ipini zituen *"umeei laguntza emateko programa bat ezarriz, osasun-arazoak zituzten Bizkaiko eskoletako umeei ingurune paregabearen egonaldiak egin, eta, horrela, osatzen laguntzeko"*. Bere garaian, zentroa Europako herrialde batzuetan garatzen hasi ziren zerbitzu aurreratuenekin parekatu zen, izan ere, eskola-higienea, pedagogia, haur-medikuntza eta ingurumenaren ulermenari buruzko gaietan aitzindaria izan zen.

Esku-hartze horien oinordeko, BBK-ren Gizarte Ekintzak haur eta gazteei zuzendutako programa eta zerbitzu sorta garrantzitsua edukitzen jarraitzen du, eta hainbat mailatan banatzen dira, **lan eta familia bizi-tza bateragarri** egiten duten Haur Eskolen Saretik hasi eta abangoardiako hezkuntza-programetaraino, **hezkuntza-sistema formalaren osagarriak direnak**.

Alor honetan garatzen diren jarduera guztiek helburu bera dute: familiei kalitatezko arreta eskaintzea, solidaritatea, ingurugiroarekiko begirunea, aniztasuna eta bizikidetasuna bezalako **balioetan heziketa** sustatzea.

Balio erantsia daukaten zerbitzuak dira, izan ere, lana eta familia bateragarri izateko mesedegarri izateaz gain, familian eta eskolan lortutako **gizarte-trebetasun osagarriak garatzen** laguntzen du. Programa hauek, era berean, prestakuntza alorrean zerbitzu publiko eta pribatuen eskaintza aberasten dute, besteak beste, sormen eta ingurumen-kontzientziari lotutako trebetasunak barneratuz. Hezkuntza arloko instituzio publiko eta pribatuekin dagoen itun-sare trinkoak, BBKren zentroetatik egiten den eskaintza beste instantzia batzuetatik egiten denarekiko koherentea eta osagarria dela bermatzen du.

6.1 Haur Eskolen sarea



BBKren Haur Eskolak Bizkaian dagoeneko ongi errotutako hezkuntza eta pedagogia baliabidea da. Haur txikiak dituzten familiei **lana eta familia-bizitza** bateratzen laguntzeko asmoz sortu ziren.

0-2 urteko umeak hartzen ditu ordutegi zabalean, eta arreta berezia eskaintzen dio arlo pedagogikoari, berrogei urtetik gorako ibilbidearekin; Bizkaian haur-hezkuntzaren aitzindaritzan kokatzen da haur-eskolen zerbitzua.

Azken urteotan, asko hazi da ekimen pribatua, baita herri-erakundeena ere, Haurreskolen Patzuegoaren bidez; hori dela-eta, BBKren eskaintza egokitzapen-prozesuan murgilduta dago. Momentu honetan erabat elebidunak diren 13 haur-eskola ditu BBK-k Barakaldon, Basaurin, Bilbon, Getxon, Santurtzin eta Sestaon. Hauek BBK Gizarte Ekintzak kudeatzen ditu zuzenean eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten beste 2 eskola ere badaude. 2013-2014 ikasturtearen hasieran BBKren sareko eskoletan matrikulatuta 507 haur zeuden.

6.2 Hezkuntza-sistemari laguntzeko programak

BBK Gizarte Ekintzak bi zentro mantentzen ditu, BBK Sukarrieta eta BBK Briñas, eta joan zen ikasturtean guztiz operatibo izan ziren, Bizkaiko **hezkuntza-sistemari laguntzeko ekipamendu** gisa.

BBK-k eskaintzen dituen hezkuntza-programak egonaldi erregimenean garatzen dira, eta hauetan, gainera, eduki nagusiak osatzen dituen proiektu zentralaz gain, jarduera osagarri eta ludiko batzuk ere badaude, egonaldia hobetu eta osatzen dutenak. Hori guztia errespetua, parte-hartzea, lankidetzeta eta erantzukizuna bezalako balioak sustatzen diren bizikidetzeta-giroan egiten da.

Programa hauek guztiak, dagoeneko, Bizkaiko hezkuntza-zentroen ohiko agendaren parte dira, eta beren hezkuntza-plan eta curriculumetan sartuta dituzte. Barne-hartzen dituzten gaiak **ingurumen-hezkuntza** eta iraunkortasuna, **sormena eta ikus-entzunezko komunikazioa**, eta **berdintasunerako eta elkartasunerako hezkuntza** dira.

Ingurumen Hezkuntzarako Zentroa (Sukarrietako BBK zentroa). Ingurumen-Hezkuntzarako Zentroa Bizkaiko eskolei zuzenduta dago eta astebeteko egonaldien bidez funtzionatzen du. Jarduera hau 1982an jarri zen abian Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzeta-hitzarmenari esker,

eta bere helburua, ingurumen, komunikazio eta bizikidetzaren eremuetara hurbiltzeko baliabide egonkorra eskaintzea da. Guzti hori hiri-kultura **ingurunearekiko** ezagutza, gozamen eta **begirunearekin** bateragarri egiteko bokaziotik eta **garapen iraunkorrarekiko konpromisotik** egiten da.

Programa ikasle eta irakasleek partekatutako gune bat izateko pentsatua dago, eta hainbat gai-arlotan antolatzen da. Hauen bidez, **ekosistemen oreka, birziklatzearen** eta berriz erabiltzearen balioa, baliabide naturalen erabilera arduratsua... bezalako gaiak lantzen dira.



Jarduera akademikoak tailer eta ekintza ludiko eta animaziozkoekin osatzen dira.

Aldi berean, **Asteburuak Sukarrietan (Sukarrietako BBK Zentroa)** programa dago bi eguneko egonaldiaren bidez, eta bertan Urdaibaiko ingurune naturala (itsasoa eta lurra) ezagutzeko ekinbideak gauzatzen dira. Zentrotik bertatik ere, paisaia- eta kultura-interesa duten lekuak ikusteko bisitak programatzen dituzte. Egondian, ikasle-taldeek **iraunkortasunaren** inguruko balioak eta **Urdaibai natura-gunearen dimentsio soziokulturala eta historikoa** ere gertutik ezagutzen dituzte. Antolatzen diren ekintzen artean Bermeora txangoak egiten dira, itsasoaren kulturen sakontzeko asmoz itsas portuaren errealitatera hurbiltzeko, nabigatzeko moduak ezagutzeko, Arrantzalearen Museoa bisitatzeko, etab.



Era berean, Izaro uhartera bisitaldia egiten da itsasontziz, sasoiaren arabera zetazeoak ikusteko. Nekazaritza eta abeltzaintza arloetara hurbiltzeko, bertako espezieak hazten dituen Zentroaren baratze eta ukuiluak ikusten dira.

Halaber, eta adimen- eta gorputz-urritasunak dituzten gazteentzako aisialdiko elkarteei laguntze aldera, Sukarrietara taldeak joaten dira eta 'Asteburuetan' programaturiko jarduera guztietan parte hartzen dute bete-betean.

Zinema Astea BBKn (Briñas eta Sukarrietako BBK zentroak). Hezkuntza-programen barnean eta ikasturtean zehar, **ikus-entzunezko komunikazio tailerra** egiten da, Bizkaiko eskoletako DBHko lehen zikloetara zuzenduta (12-13 urte bitartekoak). Gaztetxoek, astebeteko egonaldi hauen bidez, ikus-entzunezko produktu bat sortzeko aukera izaten dute. 2013ko urrian hezkuntza-programa hau Sukarrietako Zentrori aldatu zen.

Jarduera nagusia film labur bat egitea da eta jatorrizko ideia ikasleena beraiena izan ohi da. Ikasleek film labur horren sorkuntzari dagozkion eginbehar guztiak egiten dituzte: ideia, gidoia, paperak banatzea, elkarrizketak zehaztea, eszenatokiak bilatzea, filmatzea edo produkzioa, non ikasleek beren gain hartzen dituzten erantzukizun guztiak (zuzendaritza, kamerak, script-a, aktoreak, makillajea, argiztapena, soinua...), eta jardueraren azken egunean filma aurkezten dute.

Programaren barruan tailerrak eta jarduerak sartzen dira –zinemako makillajea, efektu bereziak, hanka-sartzeak eta edizio-teknikak–, ikasleek ikus-entzunezkoen eremurako dituzten gaitasun eta trebetasunak osatzeko.

Hori guztia egonaldian egiten da jarduera ludikoekin, horien artean nabarmenduz azken agurreko festa hezkuntza-giroan.

Proiektuaren garapenerako ikus-entzunezkoetan aditua den taldea eta jarduera osagarrietarako berariazko langileak ditu BBK-k.



Herritartasuna, Solidaritatea eta Lankidetzeta (Briñaseko BBK Zentroa). Zortzi urte bete dituen proiektu honen bidez, gazteentzako **balioetan oinarritutako hezkuntza** landu nahi da ikuspegi integral batetik, eta, horrela, **kontzientzia sozialerako** beharrezkoak diren gaitasun eta trebetasunak sortu. Programak hiru gai-multzo ditu: **Afrikatik bidaia** (bizitza herrixka batean eta iheslarien esparru batean); **Latinoamerika eta Makilak** (pertsonek bizi-baldintzak, bereziki emakumeenak, txirotutako eremuetan); eta **Beste Mundu bat Posible da** (bestelako herritartasun unibertsal bat sortuz). Urrian programa hau Berrizko aterpetxera aldatu zen.

Programaren bitartez ikasleek bizi duten errealitatea beste errealitate konplexuagoetatik abiatuz aztertzeke aukera izango dute, baita egunen batean protagonista izango diren munduan proposamen konprometitua **interpretazio kritikoz** egin eta bere gain hartzeko ere. Ikerketa sozialaren oinarritzako parametroetara hurbilduz, pertsona guztientzat **gizarte-antolakuntza bidezkoagoa eta duinagoa** helburu duten ekintzak eta proposamenak sustatzeko, ikasleek gogoeta egin dezaten bilatzen da. Horrez gain, esperientzia honek **bidezko merkataritzara eta kontsumo arduratsura** ere hurbiltzen ditu gazteak.

Programan parte hartuz, ohikoetatik zeharo bestelakoak diren antolaketa eta gizarte-harreman ereduak ezagutzen eta esperimendatzen dira. Horrela, berdintasuna, dibertsitatea, parte-hartzea, erantzukizuna, justizia eta zuzentasuna bezalako **balioetan oinarritutako hezkuntza** sustatzen da, ikasle parte-hartzaileen garapen pertsonala eta soziala hobetzea helburu izanik.



Barneratutako ezagutzak munduaren ikuspegi berria izaten lagundu behar du, besteak beste, **aniztasunari**, dibertsitateari eta herri bakoitzaren giza- eta kultura-ondareari zor zaion begirunean oinarrituta, ulertuz hauek direla bake eta bizikidetzarako oinarritzako balioak, baita jendearen eta herrien garapenerako ere.

Hezkuntza Programen Erabiltzaileak

	IKASLEAK	IRAKASLEAK	IKASTETXE
Ingurumen Hezkuntzarako Zentroa	2.879	170	84
Asteburuak Sukarrietan	1.240	33	35
Zinema Astea BBKrekin	1.241	71	22
Herritartasuna, Solidaritatea eta Lankidetzza	1.128	61	23
GUZTIRA	6.488	335	164

6.3 Haur eta gazteentzako udalekuak

Udalekuak bizkaitarren artean gizarte-sustrairik sakonenak dituzten jarduerak dira. Hauek daukaten ibilbide luzeagatik –joan zen mendeko lehen laurdenean Haurrentzako Udaleku Iraunkorrek hasi ziren, eta 60ko hamarkadan egungo Udalekuen formatura aldatu ziren–, eta urtero bertan parte hartzen duten neska-mutilen kopuru handiagatik (3.000 inguru iragan 2013an), BBK Gizarte Ekintzaren zerbitzu ezagunenetakoa da.

Udalekuak ekainaren azken astean, uztailan eta abuztuan egiten dira, eta 7-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta daude. **Familia-bateragarritasunerako** aukera eta **aisialdi aberasgarri eta hezigarriaren** erreferente izateko helburuarekin, Zerbitzu honen bilakaera gizarte-heziketako esku-hartzea beharrian sozial berrietara pixkanaka egokitzearen adibide ona da. Nahiz eta hasiera batean BBK-ko egoitzak baliabiderik gabeko eta osasun-arazoak zituzten haurrei laguntzeko zentro bezala erabili, gaur egun haurraren hezkuntza-garapena osatzera bideratzen dira, aisia eta bizikidetzaz jarduera modernoekin nahastuz, gure egoitzen ingurune pribilegiatuarekin koherentzian.

Dagoen eskaerari aurre egiteko, 2013an aste beteko 4 txanda antolatu dira, eta azkeneko biak 9 eta 10 egunekoak izan dira, hurrenez hurren. Honela, lan-egutegira egokitu da, zehazki esanda, San Inazioaren jaiegunera, familia askorentzat oporraldiaren hasiera edo amaiera izaten baita.



2013an berriro izan dira Udalekuetan Gipuzkoako eta Arabako haur-talde batzuk, baita Kataluniatik etorritako talde bat ere. Era berean, Kutxa Fundazioak Nafarroako Larraun herrian Arotz-Enea ingurumen-eskolan egiten dituen udalekuetan Bizkaiko haur talde handi samar bat ere izan da.

Gardentasun, konfiantza, irekitasun, hurbiltze eta etengabeko eguneratze-irizpideen ildotik, azken teknologiak sartu dira gurasoek egonaldiaren jarraipena egin ahal izateko egunez egun, helburu horretarako BBKren webgunean ipini den blogaren bidez. Horrez gain, egonaldiaren azken egunean eta seme-alabak jasotzera joateko bidaia aprobetxatuz, euren seme-alabek gidaturik instalazioak bisitatzeko aukera izan dute gurasoek.

Udalekuen Programen erabilzaileak



Sukarrieta (Bizkaia)	1.101	1.356
Briñas (Errioxa)	1.511	1.428
Arotz Enea (Gipuzkoa)	110	113
GUZTIRA	2.897	2.897

6.4 Izenaduba Basoa

Izenaduba Basoa Bizkaiko baserririk zaharreen, Landetxo Baserrian (1510) dago eta **mitologiaz diharduen parke tematikoa** da, BBK-k sustatu eta diruz laguntzen duena. Baserria guztiz eraberritua izan da, eta 6.000 m²ko jolas edo atrakzioetan izaera didaktikoa duten programa eta ekintzak barne hartzen ditu, **euskal kulturaren** inguruan interesa pizteko helburua duten hezkuntza-ereduen bidez.

30-35 laguneko taldetan antolatzen dira langile espezializatuen gidaritzapean egiten diren bisita didaktikoak. 3D simulagailu, ukitzeko pantaila eta pertsonaia bizidunekin Euskal Herriko natura eta ohiturak erakusten zaizkie haurrei.



2013an 40.315 lagun baino gehiago izan dira instalazioetan, eta 2007ko abenduan zabaldu zenetik 200.000 bisitari baino gehiago jaso ditu guztira. Bisita horien %35 ikastetxe eta elkarteetatik datoz, eta gainerako %65a partikularretatik eta familietatik (30.013 bisita Gabonetan).

7. Nagusientzako laguntza

Pertsona nagusiekiko esku-hartzea BBK Gizarte Ekintzaren jardueraren barruan ibilbide luzea duen jarduera-eremua da. Etengabeko prestakuntza indartzea edo gizarte- eta kultura-jarduera eta aisialdi aktiboko ekintzetan parte-hartzea sustatzea, BBK-k kolektibo honen premia eta profil berrietara egokitutako zerbitzuen eskaintzara eboluzionatuko du.

Gaur egun bizi-itxaropenak eta aldaketa ekonomikoek eta soziokulturalek gero eta handiagoa den biztanleriaren sektore baten aurrean jartzen gaituzte, nagusien sektorea hain zuzen ere, bizi-kalitate handiagoa duena, eta eskaera eta beharrei dagokienez oso heterogeneoa dena.

Eskaera berrietara egokitutako eskaintzarik egon ezean, eta bizi dugun krisi-egoerak kolektibo honi eragin diezazkiokeen ondorioen balorazio zehatzik egin gabe, gero eta zabalagoa den herritarren sektore baten ekarpenak galtzeko arriskua dugu, bizitza osoan zehar lorturiko gaitasunen ezagutza eta esperientziaren balio izugarria galduz.

Talde honentzat eta aldaketa-testuinguru honetan, **bititza-ohitura osasungarriak izatea**, autonomia, auto-estimua eta aisialdiaren gozamina bultzatzea ditu helburu BBK-ren esku-hartzeak, **banakako gaitasunen garapena** erraztuz eta **pertsonen arteko harremanak eta parte-hartze soziala** sustatuz.

7.1 Nagusientzako zentroak

Zentro-sare honek ibilbide luzea egin du BBK-ren Gizarte Ekintzaren jardueraren barruan.

BBK-k zuzenean 18 zentro kudeatu ditu 2013an. Zentro hauen helburua da gizarte-pertenentziako sentimendua garatzen laguntzea, eta esperientzia eta ezagutzaren trukea erraztea. Gainera, pertsona nagusien eskura jarduera-aukera zabala jartzen dute aisialdi aktiboa, kultura, gaitasun berriak eskuratzea eta osasunaren prebentzioa errazteko.

Gainera, jarduera-programaren bidez, Bizkaiko beste 29 elkarterekin jardun du elkarlanean BBK-k.

7.2 Jarduera soziokulturalen programa

2013ko ekitaldian pertsona nagusien eskura BBK-k jarri duen jarduera-programa zahartze aktiboaren hiru ardatzetan oinarritzen da: aisia balio sozial gisa; kultura eta prestakuntza, gaitasun berriak lortzeko aukera gisa; eta osasuna, ohitura osasungarriak hartzeko eta norberaren hazkundera sustatzeko bide gisa.

Jarduera-programan zortzi arlo sartzen dira. Jarduera guztietan teoria eta praktika uztartzen dira, eta pertsonen baliabideak eta tresnak ematea dute helburu, beren eguneroko bizitza hobetzen lagun diezaie. Gainera, malgutasuna dute ezaugarri, egoki erantzuteko pertsona eta taldeen erritmoei.

Ongizatearen eta hazkunde pertsonalaren arloan, osasunaren prebentzioarekin erlazionaturiko jarduera guztiak sartzen dira. Arlo honen xedea da jendeari bizi-ohitura osasungarriak ematea maila psikofisiko, emozional eta sozialean. BBKren programaren barruan tradizio handiko jarduerak –yoga edo oroimena suspertzea– eta berriagoak diren beste batzuk –“Balantzea 60 plus”, “Komunikazioa eta gizarte-trebetasunak hobetzea” edo “Aldatu zure pentsamendua. Aldatu zure bizitza”– uztartu dira. Pertsona nagusiek gehien eskatu dituzten jarduerak dira.

Oso harrera ona izan duten beste jarduera batzuk Adierazpen artistikoaren eremukoak dira: "Abesbatza", "Antzerkia", "Ziri-parpaila", "Zaharberritzea", "Zur-taila". Jarduera hauen helburua sormenaren garapena da, baita adierazpena ere.

Pertsona nagusiak teknologia berrien mundura hurbiltzea errazteko helburuarekin, teknologia berriei buruzko hainbat ikastaro eskaintzen jarraitu dugu: sare sozialak, irudien tratamendua, oinarritzko ofimatika, eta Internet mugikorrean. Prestakuntzako jarduera praktikoak dira, eta gizarte teknologiko honetan integratzeko sareak eskaintzen dituen aukerak ezagutaraziko zaizkie nagusiei.

Kulturaren eremuan irakurzaletasuna, espiritu kritikoa, edo historia eta artearen ezagutza sustatzeari buruzko ikastaroak sartzen dira. Piano, musika-entzuketa edo musika-hizkuntzaren hastapenei buruzko ikastaroetan, pertsona nagusiak musikaren arloan sartzen hasi dira edo musikari buruzko ezagutzan sakondu dute.

Hizkuntza-ikastaroek, batez ere ingelesak, eskari handia izaten jarraitzen dute. Aurten berrikuntza gisa “talk&walk” ikastaroa eskaini da, eta hor bereziki azpimarratzen da hizkuntzaren ahozkotetasuna. Jarduera honetan “txangoak” egiten dira Bilbon zehar, eta hor izena emandakoek dakiten ingelesa praktikatu behar dute ingeles hiztuna den irakaslearen babespean.

Nagusientzako lekuak eta jarduera sozio-kulturalak

Nagusientzako jarduera programa	Datuak
Jarduera kopurua	349
Okupaturiko postuak:	4.619
Gutzizko parte-hartzea:	2.849
Eremuak:	Ongizatea eta hazkunde pertsonala: 149 jarduera eta 2242 postu okupatuta
	Kultura: 6 jarduera eta 51 postu okupatuta
	Teknologia berriak: 21 jarduera eta 225 postu okupatuta
	Hizkuntzak: 62 jarduera eta 705 postu okupatuta
	Musika: 12 jarduera eta 66 postu okupatuta
	Adierazpen artistikoa: 90 jarduera eta 1080 postu okupatuta
	Gastronomia: 5 jarduera eta 62 postu okupatuta
	Irteerak eta bidaiak: 4 bidaia eta 188 postu okupatuta

7.3 EHUko Esperientzia Gelak

Esperientzia Gelak BBKren eta EHU-ren artean elkarlan iraunkorreko eremu modura sortu ziren. 55 urtetik gorako nagusiei **goi-mailako prestakuntza lortzeko azpiegitura akademikoa** eskaintza izan da helburua. Ikasgela hauetan parte hartzeko ez da alde aurreko titulurik eskatzen eta ikasketak amaitzen dituzten ikasleek Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua lortzen dute, Euskal Herriko Unibertsitatearen berezko titulua.

Bilboko Zazpi Kaleetan, Espainiako Bankuaren egoitza izandako eta gaur egun BBKren jabetzako den eraikinean gauzatzen da programa.

Bestalde, unibertsitate-titulu hori amaitzen zutenen eskariari erantzunez, titulua beste eskaintza batekin osatzea erabaki zen duela lau urte: Nagusientzako Unibertsitate Ikastaroak



Horiek urtero egiten diren bi ikasturte akademikoz daitezke honako gai hau ardatz hartuta: Modernitatea. Beraz, diseinu zabala dute, non ikasleek beren behar eta prestasunaren arabera egin nahi duten irakasgai kopurua aukera dezaketen

7.4 Nagusientzako egoitzak

BBK Sarriko Zentroak 2013ko urtarrilaren 7an hasi zuen bere jarduera egoitzan zeudenak lekuz aldatu zituenean, eta horrela bete zuen Bakearen Erregina egoitza zaharrean zeuden erabiltzaileekin harturiko konpromisoa.

20.000 m² baino gehiagorekin, kalitate handiko azpiegitura da. Banaketaren ikuspegitik, ez ditu gelak, apartamenduak baizik (logela, egongela, bainugela eta sukaldea), hain zuzen ere 46 m² edo 50 m²-ko 140 apartamentu eta 26m² edo 30 m²-ko beste 22. Gainera, eraikinak beste 6 apartamentu ditu, ezgaitasun fisikoak dituzten pertsonentzat egokituak, eremu komunak, egongelak, eraikinera sarbide zuzena duten aparkalekuak sotoan eta bista zabaleko terrazak.

Eraikin osoaren kudeaketa Vitalitas-i dagokio, Vitalitas Sarriko deiturapean funtzionatzen duelarik. Egoitza-gunean 136 apartamentu zaintzen ditu eta, aldi berean, baita Bilbao BBK Talent programako beste 32 apartamentuak ere.

BBK Sarriko Zentroa **ingurumen-iraunkortasunaren** ikuspegitik abangoardiako eraikina da, bere instalazioek LEED (*Leadership in Energy and Environmental Design*) ziurtagiria lortu baitute. Ziurtagiri honek eraikinek euren bizitza-zikloan izango duten ingurumen-portaera ebaluatzen du. Horretarako, beste aldagai batzuen artean, diseinu-arau objektiboak eta parametro kuantifikagarriak erabiliz: energiaren eta uraren erabilera eraginkorra, materialen erabilera zuzena, eraikitze-prozesuan sortutako hondakinen kudeaketa eta gelen barruko giroaren kalitatea neurtzen dira.

2013ko urriaren 31n jarri ziren aipaturiko ziurtagiria egiaztatzen duten plakak.



2013. urte osoan egoiliarak eta bisitan joan diren senitartekoak ongi egokitu dira apartamentu berrietara eta Zuzendaritzak proposaturiko jardueretara.

7.5 Beste jarduera batzuk

BBK Gizarte Ekintzak Bizkaiko eragile publiko eta pribatuekin dituen lankidetzak estrategikoen bidez, **zahartze aktiboarekin** zerikusia duten hainbat programatan parte hartu da.

Osasunaren prebentzio-eremuan Bilboko Udalarekin elkarlana egin da ikasgelak eta ordutegiak lagaz Arangoiti, Alde Zahar eta Zurbaran zentroetan, eta horietan gimnastika-eskolak eman zaizkie udalerriko pertsona nagusiei. Gainera, Osakidetzarekin elkarlana egin da gripearen aurkako txerto-kanpaina zabaltzeko nagusien artean.

BBK-k jarraitu du laguntzen Nagusi Azokaren zabalkundean, urtero egiten delarik BECen. 17. edizioan, azoka honen programazioaren helburu nagusia pertsona nagusien bizi-kalitatea sustatzea izan da. Helburu horrekin, azokak jarduera-aukera zabala jarri du bisitarien eskura, arlo askotako jarduerak eta standak.

Gizarte Ekintzatik KontsumoBIDE-Kontsumoko Euskal Institutuarekin kolaboratu da, nagusiak kontsumo arduratsuaren eremuan informatu eta prestatzeko helburuaz. Aurten hainbat gairi buruzko hitzaldiak eta lantegiak egin dira: "Bermeak eta Zerga Administrazioako Zerbitzua", "Telefonia eta Internet" eta "Uraren Kontsumoa eta Aurrekia".

8. Hirugarren Sektorea bultzatzea eta indartzea

BBK-n jabetuta gaude baterako proiektuak lantzen ditugun gizarte-entitate eta erakundeekin ezarritako harremanen kalitateak zuzeneko erlazioa duela lantzen ditugun proiektuen gizarte-eraginkortasun eta errentagarritasunarekin. Beste eragile batzuekin sarean eta lankidetzan lan egitea gure ereduaren indar-gune bat da, eta arlo honetan, gure Gizarte Ekintzak garrantzi handiko ezaguera edo eskarmentua du, indartu eta estimulatu beharrekoa. Harreman honetan sakontzen jarraitzea, gizarte-errealitate berrietara egokituta eta herritartasunaren eta Hirugarren Sektorearen beraren aurrean balioak jarrita, hori da datozen urteotarako erronka estrategikorik garrantzitsuenetako bat.

Gizarte zibilaren bilakaerak eta gizarteak parte hartzeko bide berrien sorrerak etengabe berrikuntza egitea eskatzen dute gizarte-premiei erantzuteko eruedetan. Testuinguru horretan, Hirugarren Sektorea, gizarte-ekintzako formula antolatu gisa, funtsezko aktorea da. BBKren esperientziak esaten digu erakunde multzo honek aberastasun ikaragarria duela, baita tradizioa, dimentsioa eta esperientzia ere, baina hauskorra eta zatikatua ere badela, eta horregatik sareko lan-dinamikak ezinbestekotzat jotzen dira.

Sare hori hazi eta indartzea BBKren interes handiko kontua da. Boluntarioritza- eta elkartegintza-gaietan, horixe da BBKren Gizarte Ekintzaren aldeko lan garrantzitsuaren oinarritzko araua, eta horrek eraman gaitu Estatuaren lurraldean gaur egun oraindik aitzindariak diren proiektuak abian jartzera.

8.1. Hedatzen ari diren gizarte-proiektuetarako laguntza

Gizarte Ekintzaren jarduera-printzipio orokorrekin bat, BBK-k hainbat gizarte-jarduera garatu ditu Taldeak finantza-jardueraren bat duen Autonomia Erkidegoetan. Ildo horretan, programan 781.743 euroko zuzkidura egin zen 42 proiektu abian jartzeko eta, horien bidez, hirugarren sektorearekin nahiz administrazio publikoekin dituen lankidetzazko loturak indartzeko asmoz.

Testuinguru horretan kokatzen dira, adibidez, Madrilgo La Paz Ospitaleko Epilepsia Genetikoetako Bioinformatika Unitatea garatzeko *Sindrome de Dravet* Fundazioarekin sinatutako lankidetzak; gizarte-bazterkerian erortzeko arriskuan dauden 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei laguntzeko Balia Fundazioarekin sinatutakoa; edota adineko pertsonen trataera egokiaren behatokia garatzeko Gerontologiako eta Geriatriako Espainiako Elkartearekin sinatutakoa.

Era berean, mantendu egin dira aurreko urteetan abian jarritako lankidetzak-hitzarmenak. Adibidez, Haur Garapenerako eta Arreta Goiztiarrerako Zentroa eta *Camí Obert* laneratzeko programa abian jartzeko Alacanteko Urritu Psikikoen Elkartearekin (APSA) sinatutakoa; familiekin talde-terapiako programa bultzatzeko Valentziako Komunitatean minbizia duten haurren familien Elkartearekin sinatutakoa; edota fisioterapiako, psikologiako eta terapia okupazionalerako zerbitzuak garatzeko Adimen Desgaitasuna duten Arretarako Albaceteko Elkartearekin (ASPRONA) sinatutakoa.

BBK-k, halaber, Heraldo de Aragon egunkariak Aragoiko Erkidegoko ekimen solidarioak bultzatzeko deituriko "Aragón Solidario" sariaren deialdian parte hartzen jarraitu zuen, bai eta Aragoiko nekazaritzako elikagaiei lagundu eta horren inguruan sentsibilizatzeko "Mercado Tradicional Aragonés" programa bultzatzen ere. Erkidego horretan bertan, Zaragozako Udalarekin eta Aragoiko Gobernuarekin batera, Zaragozako gizarte-ekimeneko *Kairós* kooperatibarekin lankidetzan jardun zuen, desgaitasuna duten pertsonen edota gizarte-baztertuta dauden pertsonen nahiz euren familiei zuzendutako Tutoretzapeko Etxebizitzaren Programa eta *BBK-Kairós* Gizarte Gunea abian jartzeko.

Errioxako Erkidegoan, diru-irabazi asmorik gabeko erakundeen proiektuei zuzendutako "Errioxa, arima solidarioa" sariaren deialdian egon zen BBK, eta parte hartu zuen, era berean, Errioxako lehen sektorearen inguruan sentsibilizatu eta ekoizpenean eta merkaturatzean laguntzeko "Nekazaritzako Elikagaien II. Artisautza Azokan", Logroñon burututako azoka eta ekitaldien bidez.

8.2 Bolunta – Boluntariotza eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia

Bolunta - Boluntariotza eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia da. 2002an sortu zen, BBKren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta EDE Fundazioaren arteko lankidetzak-hitzarmen baten ondorioz.



boluntaren ekintza, batik bat, boluntarioen eta euren erakundeen lan solidarioa laguntzera eta indartzera bideratuta dago, betiere gizarte berdintzaileagoa, solidarioagoa eta parte hartzailagoa lortzeko asmoz. Honako hauek egiten dira ildo horretan:

- Herritarrak gizarte-partaidetzaren esanguraz eta garrantziaz sentsibilizatzea.
- Boluntariotzaren balioak aldarrikatu eta zabaltzea.
- Bizkaiko boluntariotza-elkarteetan kide berriak sartzen eta erakunde solidario berriak sortzen laguntzea.
- Elkarteek egindako lana eta boluntariotzaren kudeaketa hobetzen laguntzea.

boluntak zerbitzu-eskaintza integrala dauka Bizkaiko irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat, boluntarioentzat eta, oro har, boluntariotzan sartu nahi duten pertsona guztientzat. Gizarte-erakundeei informazioa, bitartekotza, prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea, eta gizarte-partaidetza sustatzeko sentsibilizazio-ekintza generikoak garatzea da bere jarduera-esparru nagusia.

2013. urtean, agentziaren oinarritzko zerbitzuez gain, sentsibilizaziorako 40 ekintza egin ziren, eta zuzenean 5.000 pertsonarengana heldu zen horien bidez. 2013. urtean, agentziaren oinarritzko zerbitzuez gain, sentsibilizaziorako 40 ekintza egin ziren, eta zuzenean 5.000 pertsonarengana heldu zen, horien bidez. Ekintza horien artean nabarmendu daitezke “Zurekin bat” kanpaina, “Bat Egin” uda solidarioko kanpaina, “2013ko Boluntarioen Topagunea”, “Unikide” (unibertsitateetako boluntariotza sustatzeko) eta “Hirikide” (ikastetxeetan gazteak sentsibilizatzeko). Boluntariotzari buruzko 19 informazio-topagune egin ziren, eta geroz eta gehiago dira beraietan parte hartzen duten adineko pertsonak.

Jarraitutasuna dela eta, azpimarratzekoa da Bilbao Basket Fundazioarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmena, “Partida bat, kausa bat” proiektuaren bidez Bilbao Basketen partidetan boluntariotzaren eginkizuna agerian jartzeko.

Era berean, agentziaren prestakuntza-eskaintza zabalak bere horretan dirau: 2013an 58 prestakuntza-ekintza egin zituen, 1.059 pertsona matrikulatuta.

Azpimarratzekoa da, halaber, **boluntak** Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ‘2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategia’ diseinatu eta bultzatzen izan duen parte-hartze aktibo eta iraunkorra, bai eta Bizkaiko Adinekoen Kontseiluaren jarduera-planarekin elkarlanean hastea ere.

2013an, BBKren Gizarte Ekintzak 150.000 euro eman zituen Agentzia mantentzen eta funtzionatzen laguntzeko, eta Agentziak erabiltzen duen eraikina ere BBK Gizarte Ekintzak berak lagatakoa da.

bolunta Programa 2013an,

Erabiltzaileak: boluntariotza, prestakuntza, aholkularitza, elkarteei laguntza, espazioen eta baliabideen erabilpena eta abar	9.796
Elkarteen kontsultak	842
Atenditutako elkarteak	321
Webgunearen kontsultak	369.048

8.3 Ganbara (Elkarteen hotela)

BBK-k, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta EDE Fundazioarekin batera, 2007an jarri zuen abian **ganbara** programa, **boluntaren** (Bizkaiko boluntariotza eta parte-hartzerako agentzia) jarduera osatzeko asmoz.

Programa horrek 600 m²-ko instalazioak eskaintzen dizkie Bizkaiko elkarteei Bilboko Zazpi Kaleetan. Bertan biltzen dira, besteak beste, bulegoak, erabilera anitzeko eremuak eta baliabideak, etab., elkarteen eginkizunari lotutako era guztietako jardueretan doan erabili ditzaten.

Bizkaiko elkarte-ehun garrantzitsuak bere barne-kudeaketa eta ohiko jarduerak burutzeko duen azpiegitura-gabezia estalzen lagundu nahi du **ganbarak**. Hala, bilerak, proiektuen aurkezpenak, prentsaurrekoak, boluntarioen topaguneak, ikastaroak, jardunaldiak, batzarrak eta abar egin ditzakete bertan. Programak gizarte-erakunde txiki eta solidarioak lehenesten ditu, euren tamaina dela eta, lana garatzeko egoitza propioa erosi edo alokatzeko aukerarik ez dutenean.

Beharrian horiei erantzuteko, **ganbarak** gizarte-egoitza gisa erabiltzeko 13 bulego (26 lanpostu); era guztietako jarduera puntualak egiteko erabilera anitzeko bederatzi areto (ekitaldi-aretoa barne); eta baliabide teknikoaren zerbitzu osagarria eskaintzen dizkie.

2013. urte osoan, instalazioek erabilera-maila handia izan zuten. Hala, 48.500 lagun inguru hartu zituzten 2.767 jarduera burutu ziren bertan.

Eraikina lagatzeaz gain, BBK-k proiektuaren gastu korrontearen % 50 ordaintzen du. 2013. urtean, 40.000 euro bideratu zituen horretara.

Ganbara Programa 2013an,

Bulegoetan egoitza duten erakundearen kopurua	18
Guztientzako espazioak erabilitako aldi-kopurua	1.689
Baliabide teknikoaren mailegu-kopurua	14
Eskaera berriak	5
Erakunde erabiltzaileen kopurua guztira	1.726

8.4. Hirugarren Sektorearen Behatokia

Bizkaiko hirugarren sektorearen Behatokia (<http://www.3sbizkaia.org>), informazio, dokumentazio, ikerketa aplikatu eta sustapenerako zentroa da. Bere xedea Bizkaiko hirugarren sektorea indartzea da, eta irabazi-asmorik gabeko erakundearen berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzen ditu horretarako.

Behatokia 2007an jarri zen abian, BBKren Gizarte Ekintzak Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta EDE Fundazioarekin batera egindako lanari esker. 2013ko ekitaldian, BBKren Gizarte Ekintzak 90.000 euro bideratu zituen programa horiek garatzera.

Bulegoetan egoitza duten erakundeen kopurua	20
Guztientzako espazioak erabilitako aldi-kopurua	2.767
Guztientzako espazioak erabili diren ordu-kopurua	6.675
Erabiltzaile-kopurua guztira	48.312
Erakunde erabiltzaileen kopurua guztira	174

Aurreko urteetan bezala, 2013ko jarduerak 2010-2013 aldirako zehaztutako **hiru ildo estrategikoetan** kokatu ziren. Hiru ildo horien bidez, hirugarren sektorea gehiago eta hobeto ezagutarazteko tresna bihurtu nahi izan zuten Behatokia. Hain zuzen, tresna dinamikoagoa, irekiagoa eta parte-hartze handiagoa daukana izateko asmoa egon zen.

Lehen ildo estrategikoa dela-eta (“Hirugarren sektorea gehiago eta hobeto ezagutarazteko tresna ezagunagoa”), hirugarren sektorearen gizarte-ekarpenari lotutako alderdian sakondu nahi izan zen. Hala, aurretik lotutako lanak burutu eta era bateratuan aurkezteko asmoa eduki genuen.

Bigarren ildoari dagokionez (“tresna dinamikoagoa”), azken bi urteetan abian jarritako produktu eta formatu gehienei eutsi genien, nahiz eta doikuntza batzuk ere egin behar izan ziren, Behatokiaren aurrekontua murriztu zelako.

Hirugarren ildoari erreparatuta (“tresna irekiagoa eta parte-hartze handiagoa daukana”), hirugarren sektoreko erakunde eta sareek parte-hartze handia izaten jarraitu zuten dute Behatokiaren proiektuetan.

Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko (GHS) erakunde eta sareek asko baloratu eta erabiltzen duten tresna da Behatokia. Izan ere, erakunde askok eta ia sare guztiek parte hartu edo parte hartzen dute Behatokiak berak indartu edo hobetzeko bultzatzen dituen ekimenetan nahiz lankidetzaren bidez sustatutakoetan.

Ildo horretan, 2013a funtsezko urtea izan zen, Sareen Sarearekin (Euskadiko Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea) lankidetzan garatutako proiektuei eman zitzaizkien bultzada dela eta. Hala, Bizkaiko GHSaren historiari buruzko proiektua argitaratzeaz gain, Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreari, haren nortasunari eta gizarte-ekarpenari buruzko bideoa ere kaleratu zen.

Badira beste lan batzuk ere, hala nola GHSko erakundeetako profesionaleri buruzko ikerketa-proiektua, berriro ere erakunde eta sare parte-hartzaileekin lankidetzan burututakoa. Sustapen-alorreko beste lan batzuk ere aurkeztu ziren, GHSko erakundeekin eta erakunde horietan jarduten duten pertsonekin batera.

Hauexek dira 2013an egindako **ekintzarik garrantzitsuenak, arloz arlo banatuta:**

Informazioa eta dokumentazioa

- Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreari eta haren ekarpenari buruzko bideoa prestatu, editatu eta plazaratu zen.
- 2012an prestatutako “Baliabideak erakartzea” agiriarekin batera, finantzaketaren eta zabalkundearen inguruko datu-basea abian jarri zen.
- 11 berripaper digital (hileroko bidalketak, kudeaketako ohar laburrekin txandatuta) kaleratu ziren.
- Webguneko eremuak kudeatu ziren: espezializatutako liburutegi birtualak (gaikako liburutegia, erreferentziakoa, legeriaren ingurukoa), interes-zentroak, bibliografiaren inguruko berriak, hemeroteka, agenda, etab.
- Informazio- eta dokumentazio-alorreko beste produktu batzuk kudeatu ziren: derrigorrez bete beharreko araudia eta erakundeen kudeaketa hobetzeko; hirugarren sektoreari buruzko azterketak.

Ikerkuntza

- Bizkaiko GHSen Historiari buruzko proiektuaren emaitzak zabaltzeko proiektua.
- GHSeko profesionaleri buruzko ikerketa-proiektua.
- GHSko erakundeen balio osoari eta balio erantsiari buruzko ikerketa-proiektua (oraindik abian dena).

Sustapena

Mintegiak, lantegiak, jardunaldiak...

1. Jardunaldia: Hirugarren sektorearen eragin soziala eta politikoa: errealitate nahasiaren aurrean ahots propioa duen sektorea. Urtarrilaren 23a.
2. Mintegia: kudeaketarako adierazleak eta adierazleetan oinarritutako kudeaketa (lehen bi saioak aurreko urtean egin ziren). Urtarrilaren 21a. Itxiera-saioa.
3. Mintegia: kongregazio erlijiosoak gizarte-ekintzaren esparruan, oraina eta geroa (lehen saioa iaz egin zen). Urtarrilaren 15a eta otsailaren 18a.
4. Bizkaiko GHSko erakundeen gizarte-pertzepzioaren, -ekintzaren eta -ekarpenaren inguruko dibulgazio-jardunaldia. Urriaren 11.
5. “Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen funtsezko gaitasunen kudeaketa” argitalpena aurkezteko lantegia. Ekainaren 20a
6. Gizartekintzako hirugarren sektoreko erakundeen finantzaketari buruzko jardunaldia. Abenduaren 4a.
7. Sorkuntza-lantegia: Berdinen arteko tratu txarra. Gaiari esparru ez-formaletik heltzeko aukerak berriz pentsatzen. Urriaren 24a eta azaroaren 14a.
8. Hirugarren sektorea: begiradak eta ahotsak (sustapen-alorrak garatutako proiektua da, mintegia baino harago doana). Harremanak prestatu eta abian jartzea: azaroa / abendua.

Argitalpenak (euskarri digitalean edo paperean prestatu eta editatzea, probak berrikustea, maketazioa eta itzulpena).

1. Jardunaldia: *Dakiguna, egiten duguna eta nahi duguna. Gure gaitasunak kudeatzen ditugu, geure burua garatzen dugu, geure erakundeak bultzatzen ditugu.* Agiriak: Programa. “Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen funtsezko konpetentzien kudeaketa” argitalpenaren aurkezpena. Rogelio Fernandezek eskutik.
2. Jardunaldia: *Hirugarren sektorearen eragin soziala eta politikoa: errealitate nahasiaren aurrean ahots propioa duen sektorea.* Agiriak: Programa. Agiria: “Sistematizazio partekatuko esperientzia, hirugarren sektoreko erakundeetako eragin sozialaren eta politikoren inguruan”.

3. *“Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeen funtsezko gaitasunen kudeaketa”* argitalpenaren paperezko edizioa (maketatzeko proba Wordean begiratzea, eta gainerako edizio-lana 2013an).
4. *“Eginkizunen oreka”* argitalpenaren PDFko edizioa (materialak sistematizatzea, 2013an argitalpen bakarrean plazaratzeko). Abian da.
5. *“Harremanen ikuspegia gizartekintzan”* argitalpenaren PDFko edizioa (materialak sistematizatzea, 2013an argitalpen bakarrean plazaratzeko). Abian da.

Praktika onen bankua, albiste laburrak eta bideoak editatzea.

Praktika onen bankuan txertatzea (3); a) BBPa/Kalitatea (*“Prozesuen Mapa Identifikatzea, funtsezko prozesuak dokumentatzea eta prozesu-bidezko kudeaketa ezartzeko plana abian jartzea. EBI Bizkaia”*); b) BBPa / Antolamendu-kudeaketa (*“Laguntza eta aholkularitza erakundearen antolamendua diseinatzean”*). Zubiko Elkartea eta *“Nortasuna birplanteatzea”*. Bateginez)

Bideoak editatzea (5). Horietako baten lau bertsio.

Kudeaketako albiste laburrak prestatu eta bidaltzea (11).

8.5. Indartu Programa

INDARTU programa Bizkaiko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakunde txiki eta ertainak indartzera bideratuta dago. EDE Fundazioaren eta BBK-ko Gizarte Ekintzaren etengabeko harremanaren bidez eta Behatokiak hirugarren sektoreari buruz egindako azterketen bidez azaleratu zen erakunde horiek kudeaketa hobetzeko beharrezana dutela.

Errealitatearen azterketa horrek azaleratu zuenez, Bizkaian irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainek hainbat beharrezan dituzte:

- a. Kudeaketa hobetu eta, horrela, sistema eta tresna aproposak txertatu behar dituzte, testuinguruaren aldaketei egokitzeko moduan (Administrazio publikoek nahiz gizarte zibilak baliabideak murriztea, kalitate-eskakizunak handitzea, profesionaltasuna, efizientzia eta eraginkortasuna zerbitzuen kudeaketan eta proiektuak abian jartzean, gardentasuna, barne-demokrazia, kudeaketa etikoa....).
- b. Halere, ez dute kudeaketan laguntzeko kanpoko zerbitzuak -iraunkorrak nahiz aldian aldikoak- kontratatzeke baliabide ekonomiko nahikorik.

Halatan, bada, aldi baterako kanpoko laguntza behar dute, ekonomikoki eskuragarria, euren baliabideak eta kudeatzeko gaitasunak hobetzen lagunduko diona.

Horren harira, azpimarratu egin behar da jarduerak, betiere, erakundea garatu eta indartzera bideratzen direla eta sekula ez dakartela erakundeetako eginkizunak edo kudeaketa kanporatzea.

Hartara, programaren xedea hurrengoa da: alde batetik, erakundeen kudeaketa hobetzen laguntzea, eta bestetik, kudeaketaz arduratzen diren kide zein taldeek kudeatzeko trebeziak garatzea eta gaitasunak, sistemak eta tresnak eskuratzea, behin barneratuta, eurek erabil ditzaten, kanpoko inoren beharrezanik izan gabe.

Horregatik, erakundeetako zuzendaritza- eta kudeaketa-taldeek parte-hartze aktiboa izan behar dute hobekuntza horiek diseinatzen eta abian jartzen. Bide horretan, gizarte-ekintzako

irabazi-asmorik gabeko antolakundeetan eta beraien kudeaketa-alarretan espezializatutako kanpoko aholkularien bultzada jasoko dute.

Gainera, erakundea indartzeko funtsezkotzat jotzen diren faktoreetan kontzentratu beharko da kanpoko laguntza, betiere erakundearekin berarekin adostuta. Faktore horiek desberdinak izango dira erakundearen arabera, eta hobetzeko proiektu batean baino gehiagotan laguntzea ekar lezakete. Alabaina, horrek ez du esan nahi erakundeak kudeaketa hobetzeko duen edozein beharrianetan lagunduko denik.

Gauzak horrela, honako hauek dira programaren hartzailleak:

- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak (fundazioak, elkarteak, gizarte-ekimeneko kooperatibak edota irabazi-asmorik ez duen beste edozein figura juridiko, hala nola kongregazio erlijiosoak).
- Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza duten erakundeak, euren jardueraren zati bat behintzat Bizkaian garatzen dutenak.
- Tamaina txiki eta ertainekoak (esku-hartzea abian jartzeko unean 50 langile baino gutxiago dituztenak).
- Gizarte-ekintzan jarduten dutenak: gizarte-zerbitzuak, alor sozio-sanitariokoak, hezkuntza-alarrekoak, kultura-alarrekoak...
- Kudeaketa hobetzeko elementuak txertatu behar dituztenak.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatze baliabide ekonomikorik ez dutenak eta, kasu batzuetan, lanaldi osoan erakundearen administrazioan edo kudeaketan jarduteko profesionalik ez dutenak.

2013an aholkularitzako 20 proiektu burutu ziren 17 gizarte-erakundetan. Honako tipologia hauetako proiektuak izan ziren:

- Erakundeak sendotu eta garatzeko aholkularitza-lanak:
- Orientazio estrategikoa eta plangintza (plan estrategikoak eta kudeaketa-planak prestatzea)
- Erakundea egituratu eta hobetzea (taldeen funtzionamendua hobetzea, antolamenduaren garapena, lidergoa, barne-koordinazioko eta -komunikazioko sistemak hobetzea...)
- Ekonomia- eta finantza-alarreko kudeaketarako sistemak hobetzea
- Giza baliabideen kudeaketa hobetzea (prestakuntza-beharrizanen inguruko diagnostikoak eta prestakuntza-planak egitea, giza baliabideak kudeatzeko sistemak hobetzea, garapen profesionalerako prozesuak, coachinga...)
- Zerbitzuak eta proiektuak identifikatu, abian jarri, kudeatu eta ebaluatzen laguntzea.
- Proiektu berriak identifikatu eta baloratzea
- Zerbitzuak eta esku hartzeko proiektuak zehaztea, bideragarritasuna aztertzea, abian jartzea, eguneratzea edo berrantolatzea, batez ere proiektu berritzaileak lehenetsita

- Zerbitzu berriak diseinatzeko eta proiektu berriak prestatzeko laguntza teknikoa
- Proiektuen kudeaketa hobetzeko laguntza
- Proiektuak eta zerbitzuak ebaluatzea
- Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzen laguntzea:
- Kalitatea kudeatzeko sistemak ezarri, mantendu eta hobetzeko laguntza teknikoa (BFAren Premie eredua)
- Erakundeetan kalitate-metodologiak ezartzeko laguntza: prozesu-bidezko kudeaketa
- Erakundeetan berdintasun-politikak ezartzeko laguntza:
- Berdintasun-diagnostikoak prestatzeko laguntza teknikoa
- Berdintasun-planak prestatzea

2013an, “*Sareak eta zorroak ehuntzen/Tejiendo redes y alforjas*” izeneko kolektiboentzako laguntza-eskaintzari eutsi genion. Laguntza-metodologia horrek hirugarren sektoreko erakundeen arteko lan bateraturako eremua eskaintzen du. Erakundeak sendotzearen alorreko adituen laguntzaz, erakundeetako bakoitza hobetu eta ikaskuntza partekatuak sortzea du helburu. Eskaintza kolektibo hori egitearen arrazoa honako hau da: ikaskuntza partekatua banakakoa baino sustagarriagoa dela, agiriak, esperientziak eta animoak trukatzeko eremua eskaintzen duelako, beste pertsona eta erakunde batzuk ezagutzen laguntzen duelako, eta ikaskuntzaren alorraz harago doazen harremanak eta lankidetzak lotzea ahalbidetzen duelako.

Indartu Programa EDE Fundazioarekin lankidetzan garatu da, eta BBK-ko Gizarte Ekintzak 100.000 euro bideratu zituen horretara 2013an.

8.6. Bestelako lankidetzak

2013an, “Bizitza Solidarioa” proiektua garatzen jarraitu dugu *El Correo Digitalekin* lankidetzan. Bizkaian gizarte-bazterkeriaren aurka lan egiten duten erakunde, kolektibo, elkarte, fundazio eta pertsonak biltzeko Internet bidezko kanala da, euren gizarte-proiektuak, bizipenak eta beharrianak ezagutzera emateko aukera eskaintzen dielako. Plataforma birtual honetan errealitate desberdinak islatzen dira. Horretarako, berriak, erreportajeak, elkarrizketak eta norberak eskainitako aitopenenak biltzen dira. Halaber, elkarte, kolektibo eta banakakoentzako tresna baten bitartez ezartzen da. Hori dela eta, parte-hartze irekirako aukera zabala eskaintzen du. Informazioen eta agendaren bidez gizarte-ekintzaren egunerokoa bistaratzeaz gain, kolektibo solidarioentzako eremu zabalak eskaini eta esperientzia pertsonalak partekatzeko blogak ere agerrarazten ditu.

Urtean osoan eta programa honen baitan, **hezkuntza- eta pedagogia-jarduera** multzo garrantzitsu bat ematen da, Bizkaiko ikastetxeetako gaztetxoei zuzendutakoa: ekologiari, ekosistemen orekari, birziklatzearen balioari eta baliabide naturalak berrerabiltzeari edo arduraz erabiltzeari lotutako zenbait alderdi dira landutako gai-arloetariko batzuk, betiere **garapen iraunkorraren** garrantziaz ikasleen artean kontzientzia pizteko asmoz. 1982tik Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan garatu da programa. 2013 urtean, 2.879 gaztetxo eta 84 ikastetxetako 170 profesional igaro dira zentro honetatik astebeteko egonaldietan.

9. Ingurunea eta ingurumena

Garapen iraunkorra "pertsonek egungo beharrak, datozen belaunaldiak euren beharrak asetzeko gabe asebetetzen dituen garapena da". Intuizioz esan dezakegu jardura iraunkorra mantendu daitekeena soilik izan daitekeela. Egun badakigu giza jardura asko ez direla iraunkor edo jasangarriak epe ertain eta luzera gaur egun diren modukoak izaten jarraitzen badute.

Zalantzarik gabe, **ingurunearen zaintza** eta eskaintzen dizkigun baliabideen **ustiapen iraunkorra** gizarte moduan eutsi beharreko erronkarik garrantzitsuenak dira. 1997ko Kiotoko Akordioetan agerian geratu zen ingurune naturalaren eta garapen ekonomikoaren arteko orekaren ahultasuna. Errealitate horrek arazoa mundu mailara zabaltzen du. Baliabideak geroz eta gehiago ustiatzen dira eta epe luzera frogatu gabeko kontsumo- eta ekonomia-garapen ereduak daude indarrean. Honek gogoeta garrantzitsuak bultzatzen ditu norbanakoengan eta baita komunitate-mailan ere.

Gogoeta horien ildora BBKn **iraunkortasunarekin zerikusia duten praktika on eta balio** multzo bat aintzat nahi izan dugu gure esku-hartze guztietan. Gizarte Proiektuetarako Laguntza Programaren deialditik hasi eta gure ikasketa-zentroetan garatzen diren gizarte eta hezkuntza koeksu-hartzeak barne hartuz. Gizarte Ekintzaren programa guztiek ingurumenaren ikuspegia txertatu dute zehar-lerro gisa, gure jardueren eraginaren neurketarako parametro modura.

9.1 Hezkuntzaren eta zabalkundearen aldeko ahalegina

Ukaezina da neurgarria izango den edozein aldaketak zenbait balio finkatzea eskatzen duela. Eta BBKn balio horiek zabaltzeko eskura ditugun bide guztiak urratzen ditugu, hezkuntza-, heziketa- eta zabaltze-programak barne hartuz.

Arlo honetan tresnarik garrantzitsuenetarikoa **Pedagogia Saiakuntzarako Zentroa** da, BBKn Sukarrietako instalazioetan kokatuta dagoena. Urdaibaiko padura bezalako ingurune miresgarrian kokatutako ekipamendua izanik, bertatik ahalik eta probetxu gehien atera behar dugu.



Urdaibai, Biosferaren Erreserba izanik, gaur egun ekosistema naturalak eta giza jarduerak bateratzen dituen Euskal Herriko kokaleku gutxienetarikoa da. Horregatik, zentroa ingurunea modu naturalean ezagutzeko leku ezin hobean dago.

Urtean osoan eta programa honen baitan, **hezkuntza- eta pedagogia-jardura** multzo garrantzitsu bat ematen da, Bizkaiko ikastetxeetako gaztetxoei zuzendutakoa: ekologiari, ekosistemen orekari, birziklatzearen balioari eta baliabide naturalak berrerabiltzeari edo arduraz erabiltzeari lotutako zenbait alderdi dira landutako gai-arloetariko batzuk, betiere **garapen iraunkorraren** garrantziaz ikasleen artean kontzientzia pizteko asmoz. 1982tik Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan garatu da programa. 2013 urtean, 2.879 gaztetxo eta 84 ikastetxetako 170 profesional igaro dira zentro honetatik astebeteko egonaldietan.

9.2 Bioeskola BBK

2013ko urrian, 70 familia inguru etxean jasotzen hasi ziren BBK-Bioeskolak merkaturatu zituen lehenengo saskiak. Horietan, nekazaritza ekologikoaren eta iraunkortasunaren araberako irizpideekin landutako produktuak daude. Proiektu horrek, BBKren Gizarte Ekintzak, Bilboko Emausek eta Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoak sustatuta, eta Osakidetza-Bizkaiko Buru Osasuneko Sarearen, Zamudioko Udalaren eta Innobasqueren laguntzarekin, nekazaritza-produktu ekologikoen **zuzeneko produkzio eta komertzializazio** ekimen bat inplementatzen du. Bere helburu **nagusia gizarte-bazterketan edo horretarako arriskuan dauden gizarteratzea eta laneratzea** da; horretarako, gizarteratzerako banakako ibilbideak jarriko dira martxan, enplegarritasun-mailari egokituta.

Gainera, BBK Bioeskolak prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko espazio bat eskainiko du; espazio horren bidez gizarte-erokorrean eta eskola-populazioari zehazki, tokiko garapen iraunkorrerako ereduak erakutsiko die, hurbileko nekazaritza ekologikoan oinarritutakoa.




BBKren Gizarte Ekintzak osorik finantzaturako proiektu honen markoan, baratze ekologiko bat sortu da, Zamudioko Parke Teknologikoak utzitako 30.000 m²-ko bi partzelatan. Lursail hori lan-merkatuan sartzeko arazoak dituzten pertsonen lan-eremua izango da, eta Bizkaiko Buru Osasuneko Sareak aukeratutako 24 gizon-emakumetako talde baten laguntza izango dute. Bertan egindako lanari esker, gainera, jarduera ekonomiko autojasangarri bat sortuko dute.

Proiektuaren helburuak honakoak dira: alde batetik, bazterketa jasan ahal duten pertsonen laneratzea hobetzea, prestakuntzaren bidez, eta krisiaren ondorioz hazi den sektorearen trebakuntza, lehenengo sektorearena hain zuzen ere. Beste alde batetik, Bizkaiko ekoizpen ekologikoaren hazkuntza eta, ondorioz, lehen sektorea bera indartzea. Azkenik, Bizkaiko biztanleak, prestakuntzaren bitartez, hurbileko kontsumoaren abantailen inguruan sentsibilizatzea, sistemaren iraunkortasun-terminoetan.

9.3 Urdaibai Bird Center

Urdaibai Bird Center ikerketa eta zabalkunde zientifikorako zentroa da eta BBKren Gizarte Ekintzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin garatu da. Hegaztiak eta euren habitatak aztertzen ditu.



Urdaibaiko Biosferaren Erreserban kokatutako zentro hau Arantzadi Elkarteak kudeatzen du, eta **zentro irekia** da. Bertan, hegaztien eta haien habitata hobeto ezagutu, babestu eta artatzeaz gain, jendeak bertako jardueretan parte har dezan bultzatzen da, elkartruke, zerbitzu eta heziketa-jardueren bitartez.

Urdaibai Bird Center 2011n inauguratu zen eta bere instalazioetarako bisitaldi-programa sustatzen du, familiei eta adinekoei zuzenduta. Bisitaldi horietan bertatik bertara erakusten dira hango lan-metodoak; izan ere, metodo horiekin ekosistemak ikertzeko eta monitorizatzeko teknologia berriei goi mailako zabalkunde zientifikoa gehitzen zaie.

Horrez gain, 2013an BBK-k **4 ikerketa-beka** jarri zituen biologia edo ingurumen zientzietan titulaturako 25 urtez azpikoentzat, zentro horretako jardueretan ikerketak garatu ditzaten.



9.4. Lehen Sektorea Sustatzeko Programa

Lehen sektorea BBKren Gizarte Ekintzaren ardatzetako bat da duela hogeita hamar urte baino gehiagotik hona.

Lehen Sektoreko eragileekin den lankidetzaz **baliabide naturalak ustiatzeko eredu iraunkorren** alde hartutako konpromisoan oinarritzen da. Abeltzaintza eta nekazaritza sektore garrantzitsuak dira, BPGari egiten dioten ekarpenagatik baino, oreka naturalaren eta lurraldea ingurumena errespetatuta okupatzearen erreferente izateagatik, eta biak ala biak eragile erabakigarriak dira lurraldearen antolakuntza ekonomikoan. Irizpide horretan oinarrituta, BBKren esku-hartzea, aspaldi honetan, ustiapen txikietan oinarritutako **ekoizpen-eredu tradizionalak** jagotera zuzentzen da, baserritarrei azoka-zirkuitu bat eskainiz euren lehengaiak eta eurek egindako produktuak kontsumitzaileei zuzenean saltzeko.

Usadiozko abeltzaintza- eta nekazaritza-azokak leku aproposak dira gure baserritarrek produktuak merkaturatu ditzaten.

Salmenta zuzenerako bidea jorratzen du, bitartekaririk gabe, eta azalera handikoen edo handizkarien banaketa-zirkuituen aldean bestelako aukera bat eskaintzen dute. Bidezko prezioak bermatzen dizkie baserritarrei, eta hurbilekoak diren kalitatezko produktuak, berriz, kontsumitzaileei.



BBK-k sustatzen dituen nekazaritzako eta abeltzaintzako azoken artean, Bilboko Santo Tomasekoa eta Gernika-Lumoko Azken Astelehena dira oraindik ezagunenak, baina lehen sektorearen sustapen-lanak baditu beste hitzordu garrantzitsu asko ere. 2013an, BBK-k parte hartu zuen lehen sektoreko produktuak merkaturatzeko 86 azokaren antolakuntzan.



Horrela, BBK hurrengo alorretako azoketan egon zen: nekazaritzako hirurogeita zazpitan, abeltzaintzako lautan, gai bakarreko seitan (gazta, txakolina eta sagardoa), mikologiari buruzko bitan eta itsas produktuen inguruko beste bitan (Bermeo eta Ondarroan). Horietan guztietan, antolakuntza-lanak bere gain hartu zituen, horrelako ekitaldietarako berariaz diseinatutako erakustokiak baserritarren esku jarrita eta publizitaterako babesna nahiz sarietarako dirua emanda.

BBK-k kalitatezko enplegua sortzearen alde egiten duenaren erakusleihu dira **ekoizle gazteei emandako laguntzak**. Diru-laguntzak eta finantzaketa biguneko bideak eskaini izan dizkie, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarekin elkarlanean aritzeko protokoloaren bidez. Bestalde, ohiko nekazaritza- eta abeltzaintza-erakustaldiak **bidezko merkataritzaren produktuen sustapenarekin** batera ari dira egiten azkenaldiko ekitaldietan. Ekoizpen iraunkorraren beste aldaera bat da azken hori, oraingoan Hegoaldeko herrietatik datorkiguna.

BBKren Lehen Sektorea Sustatzeko Programa gizarteratzearen aldeko hainbat enprekin adostutako hitzarmen garrantzitsuek osatzen dute. Hitzarmen horien bidez, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboek ogibidea izan dezakete azoka-esparruetako azpiegitura muntatzen eta desmuntatzen.

9.5 Uzta Landuz, iraunkortasuna ereiten dugu

Uzta Landuz-Solidaritategiaren Ereiten Dugu egitasmoa BBK-ko hainbat langileren ekimenetik sortu zen duela urte bi. **Erakundearen boluntarioritza** sustatzeko ekimena da, BBKren Gizarte Ekintzaren laguntzaz.

Goilurrarekin batera, Uzta Landuz jarri da martxan. Goilurra, Barakaldoko Goiztiri elkarteak eratutako enpresa da eta bere xedea gizartetik baztertuta daudenak laneratzea da. Uzta Landuz proiektuaren bidez ostera, BBK-Kutxabaneko eta BBK-Gizarte Ekintzako langileek ortuko produktuez egindako otzara bat ematen diete dohaintzan astero baliabiderik ez duten hainbat familiari. Familia horiek lana galdu eta baliabide nahikorik ez dute izaten oinarrizko beharritan aurre egiteko eta, gainera, inoiz ez zuketena pentsatuko horrelako laguntza jaso behar izatea.

Caritas erakundea arduratzen da ortuko produktuez osatutako otzara jasotzen duten familiak aukeratzeko. Langabeziaren ondorioz, familia horiek egoera zailean geratu dira. Familia hauek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baino diru gutxiago kobratzeaz gain, adingabeak zaindu behar dituzte. Otzarak sei hilabeteko epe batez ematen dira, egoera berean dauden beste familia batzuk baliabide hau erabili ahal izateko.

Proiektu sortu zenetik, 11 otzara banatu dira eta 22 familia izan dira onuradunak.

Produktuak Larrabetzun hazten dira, Goilurrak kudeatutako nekazaritzako ustiategi batean, erretirodunentzako boluntarioritza proiektu orokorrako baten barruan. Izan ere, lan bizitza amaituta zuten baserritar bi Goilurrarekin ipini ziren harremanetan, haien berotegiak emateko xedez. Une jakin bateko ekimen gisa sortu zena proiektu hau moldatzen laguntzen

duen hainbat ekimenen gehikuntza bilakatu zen; izan ere, berotegiak eta lurak lagatzeaz gain, Goilurraren esku ipini dute laborantzari buruz duten ezagutza, lana sortzen duen gizarte-ekimen hori laguntzeko asmoz.

Elkartasunezko egitasmoa da, iraunkorra, inguruarekiko konpromisoa eta gauzak egiteko beste modu bat erakusten dituena.

Baina Uzta Landuz ekimenak familiaren egoera zailak arintzen laguntzen duen bitartean, gizartean egoera ahulean daudenei lanpostua eskaintzen zaie. Gainera, kontsumo arduratsua sustatzen duen proiektua da, izan ere, nekazaritza alorreko produktuen poltsa bana baliabiderik gabeko familiei dohaintzan emateaz gain, langileen artean zenbait kontsumo-talde sortzen lagundu du. Gaur egun 33 lagun dira talde hau osatzen dutenak, Kutxabankeko eta BBK Gizarte Ekintzako langileen artean.

Proiektu pilotua eta Lonjausek prestatutako testatzeko programa berritsua burutu ondoren, 2013an Getxon hasi ziren eraikitzen lehenengo 35 Aparka moduluak. 2014an, hamaika bizikleta aparkatuta hartu ditzaketen sistema hauek Euskadiko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako zenbait puntutan instalatuko dira. Europako patentea eskuratutakoan, *Aparka* beste herrialde batzuetan merkaturatzen hasiko dira. Bizikleta erabiltzean ohitura handia duten batzuk dagoeneko haien interesa erakutsi dute prototipo honi buruz. Produktua nazioartera zabaltzeak enpresa- eta gizarte-alorretan dimentsio berria emango dio Aparka proiektuari eta gizarte-berrikuntzarako proiektu-mota hau ezartzeko Europako lankidetzak-modu berriak sustatuko ditu.

9.6 Aparka, mugikortasun iraunkorra

Aparka proiektua Bilboko Emausen SCIS eta BBKren Gizarte Ekintzaren arteko lankidetzatik sortu da, biek **mugikortasun iraunkorra** xede duten egitasmoak inplementatzeko egindako apustutik

Getxoko Cedemos Mugikortasun Jasangarriaren Zentroan kokatzen da **bizikletak aparkatzeko hiriko sistema** hau, aitzindaria da Europan, segurua da eta bizikleta publikoaren sistema aurreratuenen prestazio guztiak edukitzeaz gain, bizikleta pribatuen aparkaleku ere bada. Bateragarria bizikleta publikoaren beste sistemekin, bizikleta elektrikoak berriz kargatzeko egokitzea onartzen du.

Proiektu pilotua eta Lonjausek prestatutako testatzeko programa berritsua burutu ondoren, 2013an Getxon hasi ziren eraikitzen lehenengo 35 Aparka moduluak. 2014an, hamaika bizikleta aparkatuta hartu ditzaketen sistema hauek Euskadiko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako zenbait puntutan instalatuko dira. Europako patentea eskuratutakoan, *Aparka* beste herrialde batzuetan merkaturatzen hasiko dira. Bizikleta erabiltzean ohitura handia duten batzuk dagoeneko haien interesa erakutsi dute prototipo honi buruz. Produktua nazioartera zabaltzeak enpresa- eta gizarte-alorretan dimentsio berria emango dio Aparka proiektuari eta gizarte-berrikuntzarako proiektu-mota hau ezartzeko Europako lankidetzak-modu berriak sustatuko ditu.

9.7 BBK Basoa

Ingurumena leheneratzeko proiektua da, Lurguia Fundazioarekin elkarlanean garatua Durangaldeko (Bizkaia) 3 hektareako lursail batean egin da. 2013an bertako paisaia

berreskuratzeko lanekin jarraitu izan da, eta 20 pertsonak parte hartu duten esku-hartzeen bidez. 3.000 pago, haritz, urki eta elorri baino gehiagoren kimuak landatuta zeuden lursailak mantendu eta garbitzeko lanak egin dituzte. Urtean egiaztatu denez, 2012an eta 2013ren hasieran landatutako arbola gehienek oraindik jarraitzen dute bizirik eta hirurehun landare berri inguru landatu dira, horietariko gehienak gorostiak.

9.8 Pakea Bizkaia 2010-2014

Proiektu honen helburu nagusia zera da, nabigazioaren eta ingurumena errespetatzearen artean ematen diren sinergiak ezagutaraztea. Horretarako, garapenerako heziketarekin loturiko balioak sustatzen ditu.

2013an irteerak egin izan dira talde txikietan Pakea Bizkaian nabigatzera, hainbat kolektibori zuzendutako jardueren barnean, batez ere gazteei eta familiei. Programan parte hartu dutenek eskifaiarekin bizipen sakonak partekatzeo aukera izan dute, eta, bide batez, nabigazioko oinarrizko ezagutzak jaso izan dituzte.

Bestetik, Bizkaiko zenbait ikastetxek aukera izan dute Pakeak burutzen dituen heziketa-jardueretan parte hartzeko. Jarduera horietan, eskifaia eta belaontziko horien bizipenak ezagutzeaz gain, balio batzuk transmititzen dira, talde-lanarekin eta gizakiaren jarduerak planetan eta ozeanoetan sortzen dituen ondorioekin zerikusia duten baloreak, hain zuzen. Ingurumena eta bere bioaniztasuna guztien artean zaintzeko erantzukizuna bultzatzen da, era horretan, ikasleen artean.

10. Oinarrizko eta Amateur Kirola Sustatzea

2013an ere BBK-k gogor jarraitu du lanean oinarrizko kirola zein amateurra sustatzen, erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzak-hitzarmenak sinatuta. Horrela, BBK-k diruz lagundutako esku-hartzeen artean, aipatzekoak dira Herriarteko Pilota Txapelketa, Federazioaren txirrindularitza-eskolei emandako laguntza, Athletic Fundazioarekin duen lankidetzak edo **Herri Krosa**; jarduera horiek guztiek 40.000 parte hartzaile baino gehiago izan zituzten pasa den urtean. Mendizaletasunaren arloan, berriz, **Pagasarriko 23. Martxa** egin eta **Kutxabank Mendi Film** nazioarteko jaialdiarekin lankidetzari eutsi diogu.

10.1 BBK Mundialitza

BBK Mundialitza kirolaren inguruko topaketa kulturarantz da duela urte batzuetatik. 2013an txapelketaren finala Sarrienako futbol zelaian jokatu da, eta gizonen 16 taldek eta emakumezkoen 8k parte hartu dute, haietariko bakoitzak Afrika, Europa eta Amerikako herrialde bat ordezkaturik. Txapelketa gizarteratzearen ikuspegitik prestatu da, eta talde bakoitzean hemen jaiotako jokalariek egon dira.

11. Gizarte Etxebizitza

BBK-k gizarte etxebizitza programa bat du indarrean 2010etik, Bilboko Udal Etxebizitzak sozietate publikoarekin lankidetzan. Programa horren egikaritzan, BBK-k herritarren eskura

jarri ditu Gaztelondon, Errekaldeko barrutian, bere jabetzakoak diren BOEn sustapeneko 40 etxebizitza -beren eranskin eta guzti-, **alokairu sozialeko** erregimenean erabil ditzaten.

Proiektu horrekin, BBK-k erantzuna ematen dio bizkaitarrekin duen konpromiso nagusienetakoari, hots, bateko edo besteko bideak erabiliz **etxebizitza babestuak eskuratzea** erraztea, bereziki gazteenei. Izan ere, Bilboko Udal Etxebizitzetzi higiezinak doan utzi dizkie 50 urtez.

12. Kultura eta sormena

1994tik BBK Fundazioaren bitartez bideratu da Gizarte Ekintzaren kultur eskaintza. Artea-, literatura-, euskara- eta ikerketa-arloetan lankidetzaz eta esku-hartze aukera zabala biltzen duen erreminta da BBK Fundazioa. Askotariko programak biltzen ditu eta BBK Gizarte Ekintzaren aurrekontuaren % 20 inguru inbertitzen da horien antolakuntzan.

Hona hemen BBKren kultur eskaintza egituratzen duten lau ardatzak:

- ✓ **Kultura guztion eskura egotea bermatzea.**
- ✓ **Kultura-berreskurapena bultzatzea**, bertako kultur tradizioa eratzen duten elementuak berreskuratu, zaindu eta biziberrituta.
- ✓ **Kultura, sormena eta berrikuntza berrindartzen laguntzea**, bere adierazpide guztietan.
- ✓ **Kultur balioak zabaltzea, hezkuntzaren esparruak erabilia** eta gazteenei kultur adierazpideak hurbilduta.

12.1 BBK Sala

2010eko martxoan inauguratutako BBK Sala ezinbesteko erreferente bilakatu da Bilboko gaur egungo bizitza kultural eta sozialean nahiz bere aisialdian. Balioanitzeko gune honek aukera ematen du BBKren Gizarte Ekintzak antolatzen edo babesten dituen jardueretariko asko Bilboren erdigunean dagoen toki bakar batean egiteko. Gainera, tokiak berak jarduerari berezko nortasuna eransten diela.

Hiru solairuko gune honek mila lagun har ditzake barruan, eta egokitutako eserlekuak eta sarbideak ditu desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat. BBK Salak antzinako Gran Via zinemak zuen jatorrizko egiturari eutsi dio. 125 m²-ko agertoki nagusia eta 300 m²-ko besaulki-patioa ditu, eta gainean anfiteatroa du. Salaren besaulki-patioa da bere ezaugarriarik deigarrienetakoa, tolestatzen diren 300 besaulki ditu eta. Errail sistema baten bitartez besaulkiak agertoki nagusiaren azpian gorde daitezke. Era horretan, oztoporik gabeko leku zabalagoa eskatzen duten jarduerentzako aukera eskaintzen du.

Kulturazkoak baino ez diren jardueraz gain, hala nola erakusketak, musika-ospakizunak, formatu bereziko antzezlanak, hitzaldiak eta zine-zikloak, BBK Salak tokia egiten die ekitaldi sozialei ere: prentsurrekoak, aurkezpenak eta BBKren interes-taldeekin eta Bizkaiko beste gizarte-taldeekin egindako bilerak, esaterako.

12.1.1 Erakusketak

2013an egin diren arte-erakusketa nagusiak honako hauek dira:

- “Dantzazaleak”, argazki-erakusketaren bitartez “Dantzaldi Ibiltaria” euskal dantzen ikastaroari hasiera eman zioten. ‘Aiko’ euskal dantzen taldeak aurkeztuta, Iñaki Andres argazkilariaren erakusketa honetan, AIKOk dantzari eta zaletuekin daukan harreman zuzena islatu zuen. Gainera, hasi zirenetik bere ikastaroetatik igarotako bi mila lagun baino gehiago horrela omendu zituen.
- “Robert Crumb-La Cúpula-El Víbora”. ‘Bilboko Barrea’ jaialdiaren barruan, Robert Crumben lan onenak Salan ikusi ahal izan ziren. Bera da betiko komiki alternatiboaren ahots interesgarrienetako bat eta komikiaren historiako eragin handieneko marrazkilari polemikoenetariko bat. Crumb *underground* komikiaren erregea da, gorantz datorren diziplina baten gidarietako bat, zalantza barik.
- Lotte Reinigeren omenez, ‘Zinemakumeak Gara’ jaialdian zuzendari honen irudi, argazki eta testuak bildu ziren. Halaber, marrazki bizidunetako lan guztiak proiektatu ziren, Madrileko Goethe Institutuak lagatuko materialari esker.
- ‘Zentsura At’ jaialdiaren harira, ‘Adierazpen askatasunaren aldeko umoregileak’ izeneko erakusketa egin zen Mugarik gabeko Erreportariak erakundeak aurkeztuta.
- ‘Mendi Film Jaialdiaren’ seigarren edizioa dela eta, BBK Salan ‘Mundua munduaren amaieran’ erakusketa egon zen, ‘*Al filo de lo imposible*’ telebista-saioaren omenez. Erakusketan programa honen ibilbideari buruzko laburpena agertzen da, planeta osoan zehar egindako bidaietako 40 irudi ikusgarrien bidez.

12.1.2 Antzerkia eta Dantza

BBK Salan, 2013an guztira arte eszenikoetako 14 proiektu egon dira. Guztira, 31 emanaldi egin dituzte, estetika eta joera eszeniko desberdinetako proposamenen bidez, esate baterako, dantza, antzerkia, literaturako errezitaldi zein irakurketak, edo musika dramatizatuari lotutako jarduerak. Talde profesionalek zein amateurrek aurkeztu dituzte honako emanaldi hauek. Umeek gozatu ahal izan dute euskaraz zein gaztelaniaz eskainitako emanaldi espezifikoek.



2013an hurrengo antzezpenak aurkeztu ziren: ‘*Juicio a los humanos*’, ‘*Shakespeare in Love*’, ‘*Un marido de ida y vuelta*’, ‘*La danza de las mentiras*’ edo Txirenitasen ‘*Volando voy*’.

Bestetik, Salan "Eskena 2.0" euskal antzerkiaren jaialdia egin zen, Euskadiko Ekoizpen Eszenikoaren arloko Enpresen Elkarteak proposatuta, Arte Eszenikoak herritarren parte-hartzearen bitartez sustatzeko xedez. Bestetik, "Euskal Olerkiaren BBK Jardunaldien" V. edizioa burutu zen, Galatea eta Bide Ertzean taldeen edo Tachia Quintanar aktorearen poesia eta musikazko errezitaldi batzuk eskainita.

Arte eszenikoen alorrean, BBK-k ikasleei zuzendutako antzerki-egitarauarekin elkarlanean jarraitu du, Barakaldo Antzokian. 2013an, guztira, heziketa-ziklo guztietako 8.078 ikasle eta 534 irakasle joan ziren eskola-antzerkiko emanaldietara. Programa hau duela 16 urte hasi zen.

12.1.3 Musika

Aurreko urteetan bezala, ohiturazko BBK Flamenko zikloa eman du BBK Salak 2013an ere, eta bertan aurkezten diren programetan arrakastatsuenetakoa izan da, jendearen parte hartzea eta kritika kontuan hartzen badira. Carmen Amaya omendu zuten iaz, *cante hondo* doinuaren interpretari nagusiek parte hartu zuten bost hitzordutan, hainbat joeraren espezialista zein ikerlariekin batera. Eta, Gabonetan ohitura bilakatu den legez, "*Zambomba Flamenca*" antolatu zen, hots, Gabon flamenkoari eskainitako ikuskizuna.

Era berean, beste musika-mota batzuk ezagutzera emateko asmoz, 2013an fado musikari eskainitako ziklo berriaren bigarren edizioa egin zen. Iaz joandako jende-kopuruaren zein kritikaren aldetik arrakasta handia eduki zuen. Mafalda Arnauth, Katia Guerrero, Carmo Moniz, Custodio Castelo edo Carminho izan ziren Sala bisitatu zuten atlantiko aldeko doinuaren izarretariko batzuk.

BBK Salaren programazioak, ohiko denez, musika estilo guztietako ziklo ugari eskaini du, hala nola, BBK Jazz Jaialdia, diziplina horren euskal artistak ardatz hartuta, Hileroko BJC, dagoeneko ospetsu egin den Gaur Egungo Musiken Jaialdia, edo Musiketan bera, besteak beste, hurrengo artistekin: Elliot Murphy, Pamela Hute, Bruce Cockburn, Alice Francis, Kuunkuiskaajat edo Eddie Reader.

2013an hiru urte bete zituen BBK Salan jendearen erantzun hobea jaso duten programazio egonkorretako batek: "*Music of Legends*" zikloa. 2011tik 13.000 lagunek baino gehiagok gozatu ahal izan zuten zuzenean eskainitako tamaina txikiko 27 kontzertuz. "Sarrerarik ez" kartela eskegita utzi zuten emanaldi gehienetan. '*Music Legends*' egitarauan parte hartu duten izen handiko artisten artean besteak beste, hurrengo hauek nabarmendu behar ditugu: Eric Burdon, Marianne Faithfull, Bill Wyman eta Mick Taylor, Jimmy Cliff, John Cale, Bob Geldoff, The Animals, Rickie Lee Jones, Donovan edo Frank Zappa's Grandmothers Of Invention.

Gazteenak musikan trebatzeko jarduerari dagokionez, *Kontzertu Didaktikoak* antolatu dira aurten ere BOS-ekin, *Ikastetxeei zuzendutako Jazza* zikloa eta *Doremika* programa.

Euskal sustraiak dituen musikarako ere egon da tokia, besteak beste, Oskorriren Santo Tomasetako ohiko kontzertua nahiz Xabier Lete, Gari eta Eñaut Elorrietaren emanaldiak.

Elkartasuna helburu duten kontzertuen atalean, *Mirada Solidaria*/Begirada Lagunkidea Fundazioaren rock jaialdia egin zen, garabidean dauden herrialdeetan itsutasuna arintzeko lan egiten duen GKEa, Bermeoko suteak eragindakoen aldeko kontzertu solidarioa edo Leioako Orkestra Gazteak Caritasen alde eskainitakoa.

12.1.4 Zinema

2013an proiektzioak egon ziren BBK Salan *Zentsura At Jaialdiaren* eta *Emakumeek Egindako Zine Zikloaren* barnean. Gainera, *Zinebiri* lotutako beste hainbat jarduera ere burutu ziren.

12.1.5 Beste jarduera batzuk

BBK Salaren joan den urteko jarduera diziplina askotariko beste ekitaldi batzuekin osatu zen, esate baterako, Minbiziaren aurkako II. Foroa, Athletic Fundazioak, Forum Sportek edo Bizkaiko Futbol Federazioak antolatutako hitzaldiak, hedabide digitalen DEIA topaketak eta Euskal Merkataritzakoak, hala nola herri-erakundeetako zenbait ekitaldi eta BBKren Batzar Nagusiak ere.

2013an, BBK Salan antolatutako ekitaldietara guztira 51.000 lagun hurbildu ziren.

12.2 BBK Mediateka

Alondegian dago **BBK Mediateka**, eta berau da orain Bilboko erreferentzia-gune berria hiriko kultura, kulturaren gaurkotasuna eta joera berriak garatu eta zabaltzen.

BBK Mediateka BBKren Gizarte Ekintzak **kultura eta sormena sustatzeko** duen filosofiarekin uztartu da bete-betean, biltzen dituen edukiengatik eta eskaintzen dituen zerbitzuen izaera unibertsal eta irekiarengatik. BBK-k bere gain hartzen du programazioaren kostu osoa, urtean 2 milioi euro baino gehiago jarrita. Programazio horren bidez jarduera soziokulturalak eta zabalkunde eta aisialdiko ekintzak antolatzen dira.

Hiru solairutan banatzen den 4.000 m²-ko ekipamendu honek baliabide bibliografiko ugari ditu, eta irakurketarako guneak eta hainbat baliabidez hornitutako esparruak biltzen ditu, dokumentalak eta beste herrialdeetako saioak eta filmak hainbat hizkuntzatan ikusteko ordenagailu eta pantailekin. Horrez gain, erabilera anitzeko gune bi eta hamahiru urtetik gorakoentzako Ikasteko Gela daude. **BBK Mediatekak** euskarri ezberdinetan jasotako bolumenak ditu (liburuak, CDak, DVDak, landutako dokumentazioa, egunkariak eta tokiko zein nazioarteko aldizkariak, etab.) honako gai hauei lotutakoak: komikiak, ikus-entzunezkoak, diseinua, zientzia eta teknologia, literatura, musika, osasuna eta jarduera fisikoa. BBK Mediatekaren dokumentu-fondoak, guztira, 69.989 ale biltzen ditu; horietatik, 6.636, 2013an eskuratu ziren.

Bilboko Alondegia berak emandako datuen arabera, **BBK Mediatekak** eguneko 1.680 bisita jaso zituen, batez beste, 2013. urtean, hau da, 613.000 lagun urte osoan, eta 73.500 bazkide ditu.



12.3 Museokiko lankidetzak

BBK-k lan handia egiten ari da kultura-eremuan lurraldeko museo nagusiekin batera. Azpimarragarriak dira honako erakunde hauekin dituen lankidetzak-programak, izan duten oihartzunagatik:

- ✓ **Guggenheim Museoa.** BBKren Gizarte Ekintzak Museoaren hezkuntza-programa batzuetan laguntzen du BBK Fundazioaren bitartez; "[Artea Ikasbide](#)" esaterako, ikastetxetan bertan burutu izan den egitasmoa Museoko ekipoaren monitorizazioaz lagunduta. Programari amaiera emateko ikasturte bukaeran Guggenheimeko aretoetako batean egindako lan garrantzitsuenak biltzen dituen erakusketa egin zen.

BBK-k laguntza ematen du gida- eta bisita-sistemak berri eta gaurkotzeko ere, gazteei eta familiei zuzendutako jardueretarako, eta gazteenentzako ekitaldi bereziekin, [Art After Dark](#) gisako zikloa, adibidez.



Horrekin batera, BBK-k urteak daramatza izaera sozialeko programa aukera zabala finantzatzen. Zailtasun bereziak dituzten taldeei arterako sarrera errazten zaie programa horiekin, desgaitasunen bat jasaten duten pertsonei edo Bilboko Basurtu eta Barakaldoko Gurutzetan ospitaleratutako gaixoei, kasu.

- ✓ **Bilboko Arte Ederren Museoa.** Ikastetxe zein familientzat eta, oro har, jendearentzat dituen hezkuntza-programa guztien finantzaketa bereganatzeaz gain, hainbat erakusketa egin ziren Museoaren BBK Salan: "Nestor Basterretxea: Forma eta Unibertsoa" orain arte atzera begira egin den erakusketarik osatuena; "Francisco Durrio (1868-1940). Gauguinen aztarnen gainean", lehendabizikoz eskultore, orfebre eta zeramikari honen ia lan guztiak bildu zituena; eta "Dario de Regoyos (1857-1913). Abentura inpresionista" izeneko erakusketa, pintorearen heriotzaren mendeurrenaren harira antolatutakoa. Hiru erakusketan artean, guztira, 143.000 bisita egon dira.
- ✓ **Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa.** BBK Fundazioak Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren jarduerak laguntzen ditu. Museoak Bilboko Itsasadarrean eta Itsasadarretik bizi izan diren gizon eta emakumeen historia, kultura eta nortasuna zaindu eta zabaltzeko lan egiten du.
- ✓ **Gernikako Bakearen Museoa.** Bakean eta giza eskubideetan oinarritzen den erakunde horren jarduerak babesten ditu BBKren Gizarte Ekintzak. Laguntza horri esker, erakusketak, tailer didaktikoak eta hezkuntza-baliabideak antolatzen dira.
- ✓ **Gallartako Meataritzaren Museoa.** Bizkaiko ikastetxe, institutu eta lanbide-heziketako taldeek museorako doako bisita ukan dezakete, BBK Fundazioaren laguntzari esker. Gallartako Museo honek gure herriaren historiarekin lotura estua duen meataritzaren industri ondarea zabalduta eta babesteko helburua du.

- ✓ **Beste Erakusketa batzuk.** 2013an, Bizkaiko Kultur Etxeetan zehar egindako 150 erakusketa ibiltari inguru sustatu genituen.

12.4 Musika

BBKren Gizarte Ekintzak musika-ekitaldi handietan nahiz tokian tokiko ekimen txikietan parte hartzen du. Prestakuntza eta hezkuntzako jardueraz gain, Bilboko Arriaga Antzokiari emandako laguntza nabarmendu behar dugu bere garrantzia ekonomikoagatik.

Bestetik, hurrengo ekimen hauek gogora ekarri nahi ditugu: batetik, *Udaberriko Kontzertu Koralak*, horietan Bizkaian dauden ehun abesbatzek baino gehiagok parte hartu izan dute; bigarrenez, Elorrio, Ondarroa, Lekeitio edo Bakio bezalako udalerrietan egindako *musika klasikoaren kontzertu ibiltarien zikloa*; BOSeK egindako *Kontzertu Didaktikoak*, horietan 4.000 ume baino gehiagok parte hartu dute; *Euskal Herriko Gazte Orkestrari* emandako sostengua; eta *Getxoko Jazz eta Folk Jaialdien* babesak.

Gazteenei dedikatutako musika-kontzertuen artean, "Break on Stage" jaialdiaren babesaz gain, "Bilbao BBK Live" aipatu behar dugu Bilbon daukan inpaktu ekonomikoagatik eta bisitari-kopuru handiagatik, izan ere, iaz Bilboko Kobeta mendian 105.000 lagun elkartu zituen. Jaialdi hau, laugarren urtez, *European Festival Awards* izeneko lehiaketan parte hartzeko izendatu dute. Aurten "Jende-kopuru handia hartzen duen jaialdi onena" izeneko kategorian sailkatu dute, aurreko edizioetan baino maila hobe batean kokatuta.



12.5. Euskara eta euskal kultura

Euskaltzaindia. BBK-k Euskaltzaindiarekin izandako lankidetzak historikoaren barruan, ikastetxeei zuzendutako literatura-sarien deialdi berria egin eta haien erabakia eman dute. Horietan parte hartu dute Euskal Herri osoko 500 ikasle baino gehiagok.

Durangoko Liburu eta Disko Azoka. Aurreko edizioetan bezala, BBK Fundazioak diruz lagundu du euskal kulturaren urteroko hitzordu hau. Bertan agertu dira euskaraz egindako berrikuntza editorial zein musikal nagusiak.

Azkenik, fundazioak jarraitu du euskara eta euskal kultura sustatzea xede duten herri-erakunde eta erakunde pribatu nagusiekin lankidetzan. BBK-k finantzaturako programa hauen bidez, adibidez, **Labayru Institutuak** egindako ikerketak egin ahal izan dira. Euskara sustatzeko ekimen hauekin batera, beste batzuk egin ahal izan dira: *Bertsolari Gazteen Txapelketa* eta antzerkia, musika, ikerketa eta edizioa sustatzeko jarduerak.



12.6 Argitalpenak

- **Bizkaiko Gaiak.** Argitalpen propioetan harpidetzeko eta banatzeko sistema berria dago, izan ere, orain, banaka har daitezke. Aspaldidanik argitalpenak sortzen dituen bilduma honen barruan, Pablo Martinez Zarracina idazlearen "*Bilbao Inédito*" liburua argitaratu zen. Zenbait argazkilarik hartutako irudietatik, liburu honen egileak Bilboko kale-tegi sentimentalari osatu zuen kazetaritzako artikuluen bilduma batetik abiatuta.
- **Irakurzaletasuna sustatzeko programa.** Liburutegi publikoen eta ikastetxeen sareko ikus-entzunezko programa, BBK-k finantzatutakoa. 2013an, guztira, 140 aurkezpen egin ziren.

13. Giza Baliabideak

BBK-Gizarte Ekintzaren plantilla operatiboa 2013ko ekitaldiaren amaieran 177 pertsonaz osatuta zegoen:

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
31 urte baino gutxiago	-	6	6
31 - 40 urte	5	33	38
41 - 50 urte	2	6	8
51 - 60 urte	9	104	113
60 urtetik gora	1	11	12
GUZTIRA	17	160	177

Plantilla operatiboa 2013/12/31n

	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Nagusien Unitatea	4	25	29
Haur-eskolak	6	96	102
Haur Egoitzak	2	15	17
Ola BBK Zentroa	4	21	25
Bekak	0	1	1
Ingurunea eta Iraunkortasuna	0	2	2
Kultura	1	0	1
GUZTIRA	17	160	177

Langileen banaketa 2013/12/31n

Plantila propioaz gain, Sukarrietako Hezkuntza Esperimentaleko Gunean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko 10 profesional daude lanean.

Prestakuntza alorrean 2013an izandako jarduera nagusiak honako hauek izan ziren:

- Elikaduraren Segurtasuna eta dieta bereziak
- Familia/erabiltzaileekin komunikatzea
- Alterazioak detektatzea umeen hazkuntzan
- Lan Arriskuen Prebentzioa

Barne Prestakuntzako Programak

	Parte-hartzaileak	Ordu-kopurua
PRESTAKUNTZA OROKORRA	375	2.759
EUSKARA	7	504
GUZTIRA	382	3.263

14. BBKren Gizarte Ekintzako Guneak

BBK BERAK KUDEATUTAKO GUNEAK		
Gunea	Helbidea	Udalerrria
ARTEAGABEITIAKO NAGUSIEN ZENTROA	Ekonomia, 42	BARAKALDO
BARAKALDOKO NAGUSIEN ZENTROA	Askatasunaren etorbidea, 39	BARAKALDO
GURUTZETAKO NAGUSIEN ZENTROA	Gurutzetako plaza, 3	BARAKALDO
GURUTZETAKO HAUR ESKOLA	Bakea/La Paz auzoa, 17	BARAKALDO
GURUTZETAKO HAUR ESKOLA	Florida, 7-9	BARAKALDO
BASAURIKO NAGUSIEN ZENTROA	Nagusia, 20	BASAURI
BASAURIKO HAUR ESKOLA	Autonomia, 3	BASAURI
ARIZKO HAUR ESKOLA	Extremadura, 4	BASAURI
ELKANO 20ko KULTUR GELA	Elkano, 22 etxabea	BILBO
ARANGOITIKO NAGUSIEN ZENTROA	Ganekogorta mendia, 9	BILBO
BASURTUKO NAGUSIEN ZENTROA	Aita Donosti plaza, 6	BILBO
ZAZPI KALEKO NAGUSIEN GUNEA	Erronda, z/g	BILBO
IBARREKOLANDAKO NAGUSIEN GUNEA	Aita Patxi plaza, 2	BILBO
OTXARKOAGAKO NAGUSIEN GUNEA	Zizeruene, 4	BILBO
SANTUTXUKO NAGUSIEN ZENTROA	Txomin Agirre, 3	BILBO
ZURBARANGO NAGUSIEN ZENTROA	Trauko, 15	BILBO
ZURBARANGO NAGUSIEN ZENTROA	Trauko, 15	BILBO
IBARREKOLANDAKO HAUR ESKOLA	Aita Patxi plaza, 4	BILBO
ERREKALDEKO HAUR ESKOLA	Gordoniz, 66	BILBO
SANTUTXUKO HAUR ESKOLA	Laurencin markesa, 1	BILBO
TORRE URIZARREKO HAUR ESKOLA	Baiona, 1 -3	BILBO
URAZURRUTIAKO HAUR ESKOLA	Urazurrutia, 3	BILBO
BBK SALA	Kale Nagusia 19	BILBO
ERANDIOKO NAGUSIEN ZENTROA	Jose Luis Goioaga, 22	ERANDIO
ERANDIOKO NAGUSIEN ZENTROA	Jose Luis Goioaga, 22	ERANDIO
ALGORTAKO NAGUSIEN ZENTROA	Urgull, 4	GETXO
ALGORTAKO HAUR ESKOLA	Oillarretxe, 33	GETXO
ERROMOKO HAUR ESKOLA	Ezequiel Agirre, 21	GETXO
BRIÑASEKO EGOITZA	Logroñorako errepidea, z/g	LA RIOJA
PORTUGALETEKO NAGUSIEN ZENTROA	Aita Kortazar, 7	PORTUGALETE
SANTURTZIKO NAGUSIEN ZENTROA	Francisco Calles maisua, 2	SANTURTZI
CABIECESEKO HAUR ESKOLA	Etxea Fundazioa, 5	SANTURTZI
SESTAOKO NAGUSIEN ZENTROA	Aizpuru 5-7 etxabeak	SESTAO
SESTAOKO HAUR ESKOLA	Carlos VII, 58	SESTAO
ADIMEN DESGAITASUNERAKO BBKren OLAKO ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
SUKARRIETAKO UDALEKUA	Sabino Arana Goiri z/g	SUKARRIETA

BESTE ERAKUNDEEK KUDEATUTAKO GUNEAK		
Gunea	Helbidea	Udalerria
GALLARTAKO AUZO ETXEA	Cotarro auzoa, 1 behea ezkerria	ABANTO-ZIERBENA
GALLARTAKO NAGUSIEN ZENTROA	Meatzaria etorbidea 3	ABANTO-ZIERBENA
ALONSOTEGIKO LIBURUTEGIA	Maximo Txabarri, z/g	ALONSOTEGI
ARRIGORRIAGA-ZUBIETXEKO EGUNEKO ZENTROA	Abenduaren 22a	ARRIGORRIAGA
BALMASEDAKO NEKAZARITZAKO BULEGOA	Correria, 18	BALMASEDA
LUTXANAKO LIBURUTEGIA	Artzain Ona, 66 etxabea eskuma	BARAKALDO
BARAKALDOKO AUZO ETXEA	Artzain Ona, 58 – 2. etxabea	BARAKALDO
SAN BIZENTEKO NAGUSIEN ZENTROA	Gernikako Arbola, 68-70-72-74	BARAKALDO
BERMEOKO GIZARTE ETXEA	Intxausti 1	BERMEO
BERRIZKO GIZARTE KULTUR ETXEA	Zengotitabengoa, 4	BERRIZ
BBK SARRIKO GUNEA	Agirre Lehendakaria, 138	BILBO
BILBO BBK GOOD HOSTEL	Miraflores etorbidea, 16	BILBO
ZABALAKO NAGUSIEN ZENTROA	Xenpelar, 2	BILBO
BIZITEGIKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA	Hernani, 24 – 2	BILBO
BOLUNTA – BOLUNTARIOTZAREN AGENTZIA	Erronda, z/g	BILBO
ZORROTZAKO EGUNEKO ZENTROA	Montevideo etorbidea, 121	BILBO
APNABiren AUTISTENTZAKO EGUNEKO ZENTROA	Julio Lazurtegi plaza, 13	BILBO
ALZHEIMERREN GAIXOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA	Migoya, 7 eta Lazurtegi, 6	BILBO
TXURDINAGAKO BURMUINEKO PARALISIDUNEN EGUNEKO ZENTROA	Txomin Garat 22 (Artazuriña 2-4-6)	BILBO
OTXARKOAGAKO ADINEKOEN EGUNEKO ZENTROA	JL Arrese plaza, 42 - 4	BILBO
ALZHEIMERREN ESTIMULAZIO KOGNITIBORAKO JABETUZ ZENTROA	Jose Maria Olabarri, 6	BILBO
FUTUBIDE ZENTROA	Andres E Mañarikua, 14	BILBO
ZORROTZAKO NAGUSIEN GUNEA	Montevideo etorbidea, 121	BILBO
DEUSTUKO NAGUSIEN ZENTROA	Blas de Otero poeta, 22	BILBO
ZURBARANGO NAGUSIEN ZENTROA	Artzain Ona, 20	BILBO
ERAGINTZA FUNDAZIOA	Iruña, 17 eta Madariaga etorbidea, 29	BILBO
WOPEN ZENTRALA	Agirre Lehendakaria, 151	BILBO
GANBARA – ELKARTEEN HOTELA	Erronda, z/g	BILBO
EHUKO PARANINFOA - BIZKAIA ARETOA	Abandoibarra etorbidea, 3	BILBO
APAIZ OHORAGARRIEN EGOITZA	Begoñako Andra Mari, 41	BILBO
EHUKO ESPERIENTZIA GELAK	Espainiako Bankua, 2	BILBO
GIZARTE ALOKAIURUKO 40 ETXEBIZITZAKO SAREA	Matilde Orbegozo, 12/23	BILBO
ETXEBARRIKO HAUR ESKOLA	Elizako bidea, z/g	ETXEBARRI
DURANGOKO NAGUSIEN ZENTROA	Kanpatorrosteta, 9	DURANGO
Gunea	Helbidea	Udalerria
HETEL – LANBIDE HEZIKETAKO KOORD. ZENTROA	Kanpatorrosteta, 5	DURANGO
ERANDIOKO LIBURUTEGIA	San Jeronimo, 3 eta 5	ERANDIO
GORABIDE EGUNEKO ZENTROA	Etxegorri, 16-18	ERANDIO
ASTRABUDUAKO NAGUSIEN ZENTROA	Etxegorri, 20	ERANDIO
ERMUKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO ZENTROA	Zubiaurre, 29	ERMUA

GALDAKAKO NAGUSIEN ETXEA	Bizkaiko Jaurerria kalea, 1	GALDAKAO
AHOPEKA GUNEA	On Tello, 16	GERNIKA
AREETAKO EGUNEKO ARRETA ZENTROA	Paulino Mendibil, 5	GETXO
LEIOAKO ADINEKOEN GELA GUNEA	Lapurdi 1-3	LEIOA
ENPLEGUA SUSTATZEKO LEIOAKO GUNEA	Mendibile, 3	LEIOA
MUNGIAKO NEKAZARITZAKO BULEGOA	Elorduigoitia, 5	MUNGIA
MUSKIZEKO NAGUSIEN ZENTROA	Antonio Trueba etorbidea, 1	MUSKIZ
ONDARROAKO EGUNEKO ZENTROA	Iñaki Deuna 37, beheko atea	ONDARROA
URDUÑAKO EGUNEKO ZENTROA	Gernikako plaza, 5-7 etxabeak	URDUÑA
ORTUELLAKO UME AUTISTEN ESKOLA	Bilbo etorbidea, 20	ORTUELLA
GORABIDE EGUNEKO ZENTROA	Bizkaia, 1	PORTUGALETE
ERREPELEGAKO AUZO ETXEA	Alonso Allende, 1-2	PORTUGALETE
ASPALDIKO EGOITZA	Kanpazar gaina, z/g	PORTUGALETE
SANTURTZIKO LIBURUTEGIA	Viñas z/g - Bruno Alegria, 3	SANTURTZI
CABIECESEKO ZEREGINETARAKO LANTEGIA	Hogar Fundazioa etorbidea, 9	SANTURTZI
CABIECESEKO NAGUSIEN ZENTROA	Axular, 1	SANTURTZI
MAMARIGAKO NAGUSIEN ZENTROA	Simon Bolibar, 13	SANTURTZI
BAGABILTZA GIZARTERATZEKO ZENTROA	Kale Nagusia, 51	SESTAO
SESTAKO ZENTRO SOZIOSANITARIOA	Hiru Kontzejuen plaza, 2	SESTAO
ZEREGINETARAKO LANTEGIA ETA LANTEGI BATUEN ENPLEGU GUNE BEREZIA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
SAIOA GORABIDE ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
LANTEGI BATUEN GIZARTERATU ETA LANERATZEKO ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
ADIMEN DESGAITASUNA DUTENEN BEHIN BEHINEKO EGONALDIETARAKO EGOITZA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
GORABIDE EGUNEKO ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA